N.I.F.: A-95282216 Registro Mercantil de Bizkaia, Hoja BI-38047, Folio 102, T 4347 , Inscripción 1. – Sociedad Unipersonal

I.F.Z.: A-95282216 Bizkaiko Merkataritza Erregistroa, BI-38047 O.a, 102 Oh. a, T 4347 , 1. Idazp.a – Persona Bakarreko Baltzua

ESPEDIENTE:: 011.ST.2025

ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN AGIRIA

KONTRATATUAREN BALDINTZA OROKORRAK

PROZEDURA IREKI BIDEZ, MODU ARRUNTEAN ETA BIDE ELEKTRONIKOZ SOILIK IZAPIDETUTAKO ITELAZPI, S.A.REN KONTU-AUDITORETZAREN ZERBITZUA 2025,2026 ETA 2027 EKITALDIETARAKO

AURKIBIDEA.

I.- KONTRATUAREN XEDAPEN OROKORRAK..... 7

1. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA. 7

2. KONTRATUAREN IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA..... 7

2.1. IZAERA. 7

2.1. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA. 7

3. GIZARTE, LAN ETA SEGURANTZA ARLOKO INFORMAIOA..... 8

4. KONTRATU-IZAERAKO DOKUMENTUAK. 8

5. KONTRATUAREN XEDEA. 8

6. KONTRATUAREN IRAUPENA..... 9

7. GEHIENEKO LIZITAZIO-AURREKONTUA, BALIO ZENBATETSIA ETA KONTABILITATE-ERRUBRIKA. 9

8. KONTRATUAREN PREZIOA. 9

8.1. PREZIOA HONENBESTEAN ZEHAZTEN DEN KONTRATUA. 9

8.2. PREZIOA PREZIO UNITARIOEN BIDEZ ZEHAZTEN DEN KONTRATUA: 9

9. PREZIOAREN BERRIKUSPENA..... 10

10. BERMEAK. 10

10.1. BEHIN-BEHINEKOA. 10

10.2. BEHIN BETIKOA. 10

10.3. ABEE-EN BERMEAK. 11

II.- PROZEDURARI BURUZKO BERARIAZKO XEDAPENAK: LIZITAZIO FASEA. 11

11. ADJUDIKATZEKO ETA IZAPIDETZEKO MODUA. 11

12. KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK. 11

13. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK..... 11

14. PROPOSAMENEN AURKEZPENA. 12

14.1. HIZKUNTZA. 12

14.2. BIDE ELEKTRONIKOAK. 13

14.3. KONFIDENTZIALTASUNA. 14

14.4. DOKUMENTAZIOAREN EGIAZTAPENAK. 15

14.5. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK. 15

14.6. ESKAINTZEN AURKEZPENARI BURUZKO ARGIBIDEAK: 15

14.7. KANPO UZTEKO EDO BAZTERTZEKO ARRAZOIAK ETA ARGIBIDE-ESKAERA. 15

15. PROPOSAMENEN EDUKIA..... 16

15.1. (1) GUTUN-AZALA: AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA. 16
15.2. (2) GUTUN-AZALA: EBALUATZEKO BALIO-JUDIZIOA EGITEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEEI (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIRENEI) BURUZKO DOKUMENTAZIOA. 19
15.3. (3) GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA. 19

III.- PROZEDURARI BURUZKO BERARIAZKO XEDAPENAK: KALIFIKAZIO-, ESLEIPEN- ETA FORMALIZAZIO-FASEAK.... 19

16. BALORAZIO-BATZORDEA. 19
16.1. BALORAZIO-BATZORDEA. 19
16.2. OSAERA. 19
16.3. ERAKETA:....20
16.4. EGINKIZUNAK.....20
16.5. ERABAKIAK HARTZEA:....20
16.6. BALORAZIO-BATZORDEARENTZAKO LAGUNTZA TEKNIKOA: 20

17. PROPOSAMENAK IREKITZEA.... 20
17.1. (1) GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA SAILKATZEA....20
17.2. (2) GUTUN-AZALA IREKITZEA. 21
17.3. (3) GUTUN-AZALA IREKITZEA. 21

18. ESKAINTZEN SAILKAPENA. 22

19. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK. 22

20. ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA. 23

21. ADJUDIKATU AURRETIK DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA. 23
21.1. ESLEIPENA EGIN AURREKO DOKUMENTAZIOA: DOKUMENTUEN ZERRENDA. 23
21.2. ESLEIPENA EGIN AURREKO DOKUMENTAZIOA EPEAREN BARRUAN EZ AURKEZTEA: ONDORIOAK. 25

22. KONTRATUA EZ ADJUDIKATZEKO EDO SINATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA. 25

23. KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA, EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA. 25

24. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA. 26

IV.- KONTRATUAREN BETEARAZPENA. 27

25. KONTRATUAREN ARDURADUNA.... 27

26. ZERBITZUA EMATEA. 28
26.1. KONTRATU-DOKUMENTUEN ETA JARRAIBIDEEN MENPE EGOTEA. 28
26.2. LAN-PROGRAMA....28
26.3. BAIMENAK ETA ARAUDIA....28
26.4. ZERBITZUAK EMAN BITARTEAN EDUKI BEHARREKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA. 28

26.5. ASEGURUAK. 28
26.6. LANKIDETZA. 29
26.7. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA. 29

27. BETEARAZPENEAN ERABILITAKO BALIABIDEAK. 30

27.1. BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA. 30
27.2. LANGILEEI BURUZKO BERARIAZKO ARAUAK. 31
27.3. LAN-BALDINTZEI BURUZKO INFORMAZIOA. 31
27.4. KONTRATUA BETEARAZTEKO LEKUA. 32
27.5. KALTEGABETASUN-ARAUA. 32
27.6. LANGILEEN SUBROGAZIOA. 32

28. LANARI, GIZARTE SEGURANTZARI ETA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI LOTUTAKO BETEBEHARRAK. 32

29. BETEARAZPEN-BALDINTZA BEREZIAK. 34

29.1. HIZKUNTZARI BURUZKOAK. 34
29.2. SOZIALAK EDO ENPLEGUARI BURUZKOAK. 35
29.3. AZPIKONTRATISTENTZAKO ETA HORNITZAILEENTZAKO ORDAINKETEN EGIAZTAPENA. 35
29.4. INGURUMENARI BURUZKOAK. 35
29.5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA. 36
29.6. BETETZE ETIKOA. 37
29.7. LOGOEN EDO MARKEN ERABILERA. 38
29.8. DATUAK BABESTEAREN ARLOAN. 38

30. KONFIDENTZIALTASUNA, IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA ETA INFORMAZIOA. 39

30.1. KONFIDENTZIALTASUNA. 39
30.2. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA. 39
30.3. DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA. 42

31. EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK. 43

31.1. LANEN JABETZA. 43
31.2. JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALA. 43

32. ZIGORRAK. 44

32.1. ZIGORRAK. 44
32.2. ZIGORREN EZARPENA. 45

33. PREZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA. 46

33.1. PREZIOA. 46
33.2. BARNE HARTUTAKO KONTZEPTUAK. 46
33.3. PREZIOEN BERRIKUSPENA. 46
33.4. SORTZAPENA, ORDAINTZEKO MODUA ETA EPEA. 46

33.5. KONPENTSAZIOA. 46

34. KONTRATUAREN ALDAKETA. 46

35. AZPIKONTRATAZIOA. 47

35.1. BETEKIZUN OROKORRAK. 47

35.2. AZPIKONTRATISTENTZAKO ETA HORNITZAILEENTZAKO ORDAINKETAK. 48

35.3. AZPIKONTRATISTENTZAKO ETA HORNITZAILEENTZAKO ORDAINKETEN EGIAZTAPENA. 48

36. LAGAPENA. 49

V.- KONTRATUA AZKENTZEA 50

37. BETETZEA: EMATEA, HARRERA ETA LIKIDAZIOA. 50

37.1. EMATEA ETA BETETZE ZUZENAREN EGIAZTAPENA. 50

37.2. AKATSEN ZUZENKETA. 50

37.3. HARRERA. 51

37.4. LIKIDAZIOA. 51

38. BERME-EPEA ETA BERMEAREN ITZULKETA. 51

38.1. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK. 51

38.2. BERMEAREN ITZULKETA. 52

39. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA. 52

39.1. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK. 52

39.2. EZ-BETETZEAGATIK SUNTSIARAZTEAREN ONDORIOAK. 53

VI.- EGINTZEN BERRIKUSPENA 53

40. EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA. 53

40.1. KARATULAREN 7.2 PUNTUAN ADIERAZITAKO BALIO ZENBATETSIAK SPKL-AREN 44.1 ARTIKULUKO ATALASEAK GAINDITZEN BADITU, HONAKO HAU APLIKATUKO DA: 53

40.2. KARATULAREN 7.2 PUNTUAN ADIERAZITAKO BALIO ZENBATETSIAK EZ BADITU GAINDITZEN SPKL-AREN 44.1 ARTIKULUKO ATALASEAK, HONAKO HAU APLIKATUKO DA: 53

VII.- ERANSKINAK 54

0. ERANSKINA.- AKP-REN ERANSKINEN LABURPEN-TAULA 54

1. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA 55

2. ERANSKINA: BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA 56

3. ERANSKINA: ESKAINTZAN JASOTAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIALA DELAKO ADIERAZPENA 58

4. ERANSKINA: ABEE-A FORMALKI ERATZEKO KONPROMISOA 59

5. ERANSKINA: KONTRATUAREN XEDE DEN JARDUERA EGITEN DUTEN PERTSONEI DAGOKIENEZ HARTZEN DITUEN KONPROMISOEI BURUZKO ADIERAZPENA 60

6. ERANSKINA: ENPRESA-TALDE BEREKOAK DIREN ENPRESAK- 61

7. ERANSKINA: ESKAINTZAREN EDO ESKAINTZA INTEGRATZAILEAREN XEDE DEN SORTA EDO SORTAK: SORTA-KONBINAZIOA 62

8. ERANSKINA: JAKINARAZPENETARAKO ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK..... 63

9. ERANSKINA: LEHIAREN DEFENTSARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA. 64

10. ERANSKINA: ESKAINTZA EKONOMIKOA..... 65

11. ERANSKINA: BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENAREN ETA BALIABIDEEN ESKURAGARRITASUNA KONTRATUAREN INDARRALDI OSOAN..... 67

12. ERANSKINA: SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZA 68

13. ERANSKINA: AZPIKONTRATAZIOARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA 69

14. ERANSKINA: LAN-KONTRATUEN BALDINTZEN INGURUKO DATUEI BURUZKO ADIERAZPENA 70

I.- KONTRATUAREN XEDAPEN OROKORRAK

1. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA.

Erakunde kontratatzaile deritzo (eta aurrerantzean «**erakunde kontratatzailea**» esango diogu) agiri honen buruan dagoen karatularen **2. puntuan** aipatutakoari; haren datuak, helbidea, telefono-zenbakia eta kontratatzailearen profila ere puntu horretan adierazten dira.

2. KONTRATUAREN IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

2.1. IZAERA.

Lizitazio honek xede duen kontratua izaera pribatukoa da.

2.1. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Haren prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, klausula hauek eta karatularen **12. puntuan** azaldutako xedapenek zuzenduko dute.

Ondorioak eta azkentzea direla-eta, zuzenbide pribatuko arauei jarraituko die. Hala ere, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora («SPKL»ak), artikulu hauetan ezarritakoa aplikatuko zaio: 201. artikulua (ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharrak), 202. artikulua (kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak), 203. artikulutik 205. artikulura bitartekoak (kontratuak aldatzeko kasuak), 214. artikulutik 217. artikulura bitartekoak (lagapena eta azpikontratazioa) eta 218. artikulutik 228. artikulura bitartekoak (kontratazioa teknikoki arrazionalizatzea). Era berean, 198. artikuluaren 4. apartatuan, 210. artikuluaren 4. apartatuan eta 243. artikuluaren 1. apartatuan ezarritako ordainketa-baldintzak beteko dira, baita 319. eta 320. artikuluetan xedatutakoa ere.

Alderdien artean kontratuaren prestaketari, adjudikazioari eta aldaketei buruz sortzen diren eztabaiden berri izateko, azken horiek aurkaratzeko oinarria denean SPKLaren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa bete ez dela, aldaketaren ondorioz beste adjudikazio bat egin behar zela pentsatzen denean, administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena izango da eskuduna.

Alderdien artean kontratuaren ondorioei eta azkentzeari buruz sortzen diren eztabaidak jurisdikzio-ordena zibilaren eskumena izango dira, aurreko paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketak izan ezik.

3. GIZARTE, LAN ETA SEGURANTZA ARLOKO INFORMAIOA.

Zergen, ingurumenaren, emakumeen eta gizonen berdintasunaren, enpleguaren babesaren, lan-baldintzen, lan-arriskuen prebentzioaren eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratzearen, desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharraren, datuen babesaren eta lehiaren defentsaren arloan, honako erakunde hauetan eskura daiteke indarrean dauden betebehar eta xedapenei buruzko informazioa:

- **Emakumeen eta gizonen berdintasuna**: EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoa.
- **Zerga-arloa**: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako eta Nafarroako Foru Komunitateko foru-ogasunak eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.
- **Ingurumenaren babesa**: IHOBE sozietate publikoa.
- **Enpleguaren babesa, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa**: Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza eta OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
- **Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharra**: LANBIDE erakunde autonomoa.
- **Datuen babesa**: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.
- **Lehiaren arloan** indarrean dauden betebeharrei eta xedapenei buruzko aholkularitza: Lehiaren Euskal Agintaritza.

4. KONTRATU-IZAERAKO DOKUMENTUAK.

Honako dokumentu hauek kontratu-izaera izango dute eta kontratuaren zati banaezintzat joko dira:

- Administrazio-klausulen agiria (AKA) eta haren karatula.
- Oinarri teknikoen agiria (OTA) edo dokumentu baliokideak eta, halakorik badago, dokumentazio osagarria.
- Kontratua formalizatzeko dokumentua.
- Adjudikaziodunaren eskaintza.
- Kontratuaren arduradunak egikaritzeko zein interpretatzeko ematen dituen jarraibideak.

5. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea karatularen **3. puntuan** zehazten dena eta oinarri teknikoen agirian definitzen dena da.

Kontratuaren xede den prestazioa bat etorriko da 4. klausulan zerrendatutako dokumentazioan agertzen diren baldintzekin.

Kontratua sortatan banatuko da, karatularen **4. puntuan** azaltzen den moduan, **5. puntuan** ezarritako muga eta aukerekin.

Kontratua segidako traktukoa denean eta haren xedea osatzen duten prestazio-unitateen kopurua zehatz-mehatz definituta ez dagoenean, Erakunde kontratatzaileak eskatzen dituen prestazio-unitateak egikaritu beharko ditu adjudikaziodunak («**kontratistak**»).

6. KONTRATUAREN IRAUPENA.

Kontratuaren iraunaldia edo prestazioa egikaritzeko epea karatularen **6.1 puntuan** ezarritakoa izango da.

Karatularen **6.2 puntuan** hala xedatzen bada, kontratua prestazioak errepikatzeko luzatu ahalko da.

Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du eta enpresaburuarentzat nahitaezkoa izango da, baldin eta gutxienez kontratuaren iraunaldia bukatu baino bi hilabete lehenago ohartarazten bada.

7. GEHIENEKO LIZITAZIO-AURREKONTUA, BALIO ZENBATETSIA ETA KONTABILITATE-ERRUBRIKA.

Gehieneko lizitazio-aurrekontua karatularen **7. puntuan** agertzen dena da; bertan, kontratuaren balio zenbatetsia eta, hala badagokio, prezioa ordaintzeko erabiliko den kontabilitate-errubrika ere aipatzen dira.

Espedienteari erantsitako ziurtapenaren bidez, egiaztatzen da badagoela kreditu egokia eta nahikoa kontratuaren ondoriozko betebeharrak betetzeko.

8. KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratuaren prezioak edo prezioek honako hau hartzen dute barne: aplika daitezkeen tributu, tasa eta kanon guztiak eta kontratu-baldintzak betetzearen ondoriozko beste edozein gastu.

8.1. PREZIOA HONENBESTEAN ZEHAZTEN DEN KONTRATUA.

Prezioa honenbestean zehazten den kontratuetan, kontratuaren prezioa adjudikaziodunak eskainitakoa izango da eta ezingo da inoiz oinarrizko lizitazio-prezioa (BEZik gabe) baino handiagoa izan; prezio hori karatularen **7. puntuan** jasota dago.

8.2. PREZIOA PREZIO UNITARIOEN BIDEZ ZEHAZTEN DEN KONTRATUA:

Prezioa prestazioaren osagai bakoitzari, egikaritze- edo prestazio-unitateari edo denbora-unitateari dagokion prezio unitarioa kontuan hartuta zehazten den kontratuetan:

a) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehatz-mehatz definitzen denean:

- Prezioa kalkulatzeko, adjudikaziodunak eskainitako prezio unitarioa bider unitateen kopurua egingo da.

b) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehatz-mehatz definitzen ez denean:

- Unitate bakoitzaren prezioa adjudikaziodunak eskainitakoa izango da.
- Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea ezarriko da. Aurrekontu hori oinarrizko lizitazio-aurrekontua bera izan daiteke edo, bestela, adjudikaziodunak lizitazio-prezio unitarioen murrizketa eskaini badu, kontratazio-organoak zehazten duen proportzioan murriztu ahalko da.
- Kasu horretan, aurrekontu horren gastu efektiboa erakunde kontratatzailearen benetako beharrek baldintzatuko dute; erakundeak ez du zertan unitate-kopuru jakin bat eskatu, ezta guztiz gastatu ere.

9. PREZIOAREN BERRIKUSPENA.

Kontratuaren karatularen **9. puntuan** hala adierazita badago bakarrik berrikus daitezke prezioak, klausula horretan jasotako formula aplikatuz.

10. BERMEAK.

10.1. BEHIN-BEHINEKOA.

Ez da bidezkoa izango behin-behineko bermea eskatzea, salbuespenezko kasu honetan izan ezik: interes publikoarekin lotutako arrazoiak direla medio beharrezkotzat jotzen denean eta karatularen **10.1 puntuan** behar bezala arrazoitzen denean; hala izanez gero, bertan adieraziko da kontratua burutu arte eskaintzak mantenduko direla ziurtatzeko berme bat eratu behar dela aldez aurretik.

Berme hori SPKLaren 108. artikuluaren 1. apartatuan xedatutako moduetan eratu ahalko da.

Behin-behineko berme hori automatikoki azkenduko da eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei kontratua burutu ondoren. Nolanahi ere, adjudikaziodun izendatutako lizitatzaileari behin betiko bermea eratzen duenean itzuliko zaio; orduan, behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betikoari aplikatu ahalko zaio edo, bestela, behin betikoa hutsetik eratu ahalko da.

10.2. BEHIN BETIKOA.

Karatularen **10.2 puntua** hala xedatzen badu, eskaintza onenak aurkezten dituzten lizitatzaileek puntu horretan adierazitako zenbatekoko bermea eratu, eta kontratazio-organoaren esku utzi beharko dute.

Behin betiko bermea eta, halakorik egonez gero, osagarria SPKLaren 108. artikuluan xedatutako edozein modutan aurkeztu ahalko dira.

Itzultzeko edo ezerezteko araubidea SPKLaren 109. eta 111. artikuluetan ezarritakoa izango da, karatularen **10.5 puntuan** bestelakorik ezarri ezean.

Behin betiko bermeari SPKLaren 110. artikuluko erantzukizunak egokituko zaizkio.

10.3. ABEE-EN BERMEAK.

Aldi baterako enpresa-elkarteei dagokienez (aurrerantzean ABEE esango zaie), bai behin-behineko bermeak bai behin betikoak ABEEko partaide den enpresa batek edo batzuek eratu ahalko dituzte, baldin eta osorik hartuta eskatutako guztizko muntara heltzen badira eta bermeak ABEEa osatzen duten kide guztiak batera eta solidaritatez hartzen badituzte barne.

II.- PROZEDURARI BURUZKO BERARIAZKO XEDAPENAK: LIZITAZIO FASEA.

11. ADJUDIKATZEKO ETA IZAPIDETZEKO MODUA.

Kontratua karatularen **12. puntuan** azaldutako prozeduraren eta izapidetze-moduaren bidez adjudikatuko da, bertan ezartzen diren arauekin bat etorriz.

12. KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK.

12.1.- Esteka honetan aurki daiteke erakunde kontratatzaileak argitaratutako kontratatzailearen profila:

http://www.itelazpi.eus/perfil-del-contratante/.

12.2.- Interesdunek karatularen **2.1 puntuan** dagoen helbide elektronikoa erabil dezakete kontsultak egiteko eta dokumentazio osagarria edo informazio gehigarria eskatzeko.

Idatziz egingo dute, kontratatzailearen profilean eta karatularen **14. puntuan** informazioa eskatzeko ezarritako azken egunera arte, eta karatularen **14. puntuan** adierazitako azken egunera arteko epean (hori barne) erantzun beharko zaie.

Erakunde kontratatzaileak agiriei buruzko informazio gehigarria, argibideak eta behar den gainerako dokumentazioa emango dizkie lizitazio-prozeduran interesatutako guztiei, karatularen puntu berean adierazitakoaren arabera.

13. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

13.1.- Honako hauek har dezakete parte kontratazio-prozeduran: pertsona naturalek edo juridikoek, espainolek zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badaukate, kontratatzeko debekurik ez

badute eta kaudimen-betekizunak betetzen badituzte edo, hala badagokio, sailkapena badaukate eta, hala badagokio, karatularen **15.3 puntuan** ezartzen diren gaikuntzak badauzkate (klausula horretan adierazi bada «eskaintzak aurkezteko azken egunean» eduki behar direla gaikuntzak).

Era berean, aurreko paragrafoan aipaturiko betekizunak betetzen dituzten zenbait pertsonak ABEE batean elkartuta har dezakete parte, legez ezarritako baldintzen arabera.

SPKLaren 66.1 artikuluan xedatutakoa betetzen duten pertsona juridikoek bakarrik har dezakete parte, baita Europar Batasunaren barruko eragile ekonomikoek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoek eta Europar Batasunaz kanpoko eragile ekonomikoek ere, baldin eta SPKLaren 67. eta 68.1 artikuluetan ezarritakoa betetzen badute, hurrenez hurren.

13.2.- Pertsona bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahalko du, kontratuaren karatularen **18.4 puntuan** aldaerak onartu ezean. Halaber, ezingo du beste batzuekin batera ABEEa eratuta proposamenik sinatu bakarka egin badu, ezta ABEE batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, pertsona horrek sinatutako proposamen guztiak baztertuko dira.

13.3.- Kontratuaren karatularen **12. puntuak** ezartzen badu kontratua erreserbatuta dagoela gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta laneratze-enpresentzat, barne hartuta dagoela enplegu babeseko programen esparruan, SPKLaren laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, edo erakunde jakin batzuentzat erreserbatuta dagoela, SPKLaren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, parte hartzeko ezinbestekoa izango da, gainera, legez ezarritako betekizunak betetzea (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartua; Gizarteratze Enpresen Araubidearen abenduaren 13ko 44/2007 Legea; eta SPKLaren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria).

13.4.- Eskaintzak aurkezteko azken egunean, karatularen **15. puntuan** gaitasunari, kaudimenari eta enpresa- edo lanbide-gaikuntzari buruz eskatzen diren inguruabarrak bete behar dira (klausula horretan ez bada zehazten «kontratua formalizatu baino lehen» bete behar direla) eta ez da kontratatzeko debekurik eduki behar; egoera horretan kontratua burutu arte jarraitu beharko da.

Erakunde kontratatzaileak ziurtagiri eta egiaztagiri guztiak edo horietako batzuk aurkezteko eskatu ahalko die lizitatzaileei prozedurako edozein unetan, ondo garatzen ari dela bermatzeko behar denean, kontratua adjudikatu aurretik. Era berean, aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzko argibideak eskatu, edo agiri osagarriak aurkezteko errekerimendua egin ahalko die.

14. PROPOSAMENEN AURKEZPENA.

14.1. HIZKUNTZA.

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita edo hizkuntza horietara itzulita aurkeztu behar da.

14.2. BIDE ELEKTRONIKOAK.

Karatularen **12. puntuan** ez badaesaten kontratuaren adjudikazio-prozedura izapidetzeko bideak ez direla elektronikoak, eskaintzak bide elektronikoz aurkeztuko dira, KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMA CONTRATACIÓNPÚBLICA EN EUSKADI SISTEMA DE LICITACIÓNELECTRÓNICA delakoan dagoen LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA izeneko aplikazioaren bidez.

https://apps.euskadi.eus/w32-home/es

https://www.contratacion.euskadi.eus/kpecpe-licitacion_electronica-kontratazioa_es/w32-kpelicel/es/

14.2.1. Hauek dira erabiltzeko betekizunak:

14.2.1.1. Administrazio-betekizunak:

a) EAEko Administrazioak izapidetze elektronikorako baimendutako ziurtagiri digital bat edukitzea. Gaur egun, hauek dira ziurtagiri elektronikoak:

- Izenpe (erakundea, herritarra, erakundearen ordezkaria).
- FNMT (erakundea, herritarra, erakundearen ordezkaria).
- NAN elektronikoa.
- Camerfirma (erakundea, herritarra).

Onartutako ziurtapen elektronikoei buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:

https://www.contratacion.euskadi.eus/informacion-general-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/

b) Egoera hauetako batean egotea:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda egotea eta indarreko ziurtapena edukitzea.
- Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta ez dauden enpresei eta ABEE gisa lehiatu nahi duten enpresa-taldeei Lizitazio Elektronikoko Sistema atzitzea ahalbidetzen dien aldi baterako gaikuntza-sisteman alta emanda egotea.
- Bi eragile ekonomiko edo gehiago batera lehiatzen badira adjudikaziodun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoarekin: ABEEa sortzeko konpromisoak aldi baterako gaikuntza-sisteman erregistratuta egon behar du.

Horri buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:

https://www.contratacion.euskadi.eus/informacion-general-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/

14.2.2. Baldintza teknikoak:

Betekizun teknikoei buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:

https://www.contratacion.euskadi.eus/informacion-general-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/

14.2.3. Aurkezteko modua:

a) Kontratazioa arautzen duten agirietan azaldutako dokumentuak erantsi behar dira, aplikazioan agertzen diren gutun-azaletan.

b) Luzapen hauekin gordetako dokumentuen irakurketa eta izapidetzea bakarrik bermatzen dira: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip, eta .7z.
c) Birusek sistemaren eraginkortasunean eduki dezaketen eragina txikiagotzeko, gomendatzen da dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuetan bidaltzea.
d) Eskaintza aurkezpen-epean jaso dela esango da transmisioa epe barruan hasi, eta ondo amaitzen bada.

Horri buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:

https://www.contratacion.euskadi.eus/recomendaciones-uso-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/

https://www.euskadi.eus/web01-a4ogainf/es/contenidos/documentacion/estandar_01080402/es_def/index.shtml

14.2.4. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak ebazteko laguntza-zerbitzua:

Horri buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:

https://www.contratacion.euskadi.eus/contacto-incidencias-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/

Zehazki, gorabeheretarako:

- Posta elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus
- Telefonoa: **945 016 298** (Arreta ordutegia: 7: 45etik 20: 00etara).

14.3. KONFIDENTZIALTASUNA.

Aurkeztutako dokumenturen bat konfidentzialtzat jotzen duten lizitatzaileek berariazko adierazpena egin behar dute (**3. ERANSKIN**A betez) eta argi utzi behar dute, gaininprimaturik edo orrialdeko marjinan, konfidentzialtzat hartutako dokumentuan bertan. Ez badute hala egiten, dokumentua ez da konfidentzialtzat joko.

3. ERANSKINEAN, sekretu tekniko edo komertzialei lotuta egoteagatik konfidentzialtzat jotzen diren eskaintzako informazioa eta alderdiak aipatzeaz gain, lotura hori egiaztatzen duten arrazoi zehatzak azaldu behar dira.

Eskaintza ekonomikoa (10. eranskinean jasotako eredua) ez da inoiz konfidentziala izango. Eskaintza ekonomikoa konfidentziala dela adierazten bada, adierazpen hori ez da kontuan izango.

Konfidentzialtasun-adierazpena ezingo da hedatu lizitatzaileak aurkeztutako dokumentu guztietara, ezta eskaintza teknikoko egiaztagiri guztietara ere. Kasu horretan, edo adierazpen horren tamaina desegokia bada, kontratazio-organoak erabakiko du, arrazoiak emanez, zein datu edo dokumenturi dagokien izaera hori. Horixe bera egingo du kontratazio-organoak adierazpenak ez badu egokiro funtsatutako arrazoi nahikorik jasotzen lizitatzaileak aipatutako informazio hori konfidentzialtzat zergatik jo duen azaltzeko.

Lizitatzaileak ez badu berariaz datu edo agiri konfidentzialik adierazi, aurkeztutako ezein datu edo dokumentu konfidentziala ez dela ondorioztatuko da; dena den, salbuespenez eta modu arrazoituan, kontratazio-organoak informazioren bat konfidentzialtzat jo ahalko du, hala adierazita ez badago ere, enpresa-interes legitimoak gordetzeko helburuarekin.

Era berean, eskaintzak aurkeztutakoan, ez da baimenduko datu jakin batzuk konfidentzialak direla esatea, aurkezteko unean ez bada egin.

Adjudikazio-prozeduran hasierako eskaintzan jasotzen ez zen dokumentazioa aurkezten bada, dokumentazio berri hori osatzen duten datuak edo agiriak konfidentzialak direla adierazi ahalko da, klausula honetako aurreko paragrafoetan azaldutako baldintzetan.

14.4. DOKUMENTAZIOAREN EGIAZTAPENAK.

Erakunde kontratatzaileak aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatu ahalko du, bai adjudikazio-prozeduran bai kontratua adjudikatu eta formalizatutakoan. Datuen faltsutasunak kontratua deuseza izatea eragin dezake. Arrazoi horrengatiko deuseztasun-deklarazioa eragile ekonomikoari egotz dakiokeen ez-betetzetzat jotzen da; beraz, izandako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio eragileak erakunde kontratatzaileari.

14.5. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK.

Adjudikazio-erabakia eta SPKLan xedatutako gainerako izapidetze-egintzak jakinarazi egingo dira.

Honako hauek joko dira komunikaziotzat: argibide-eskaerak, akatsak edo ez-egiteak zuzentzeko errekerimenduak, agiri honetan xedatutako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLan xedatutako gainerako izapidetze-egintzak.

Jakinarazpenak eta komunikazioak lizitazio elektronikoko sistemaren bidez egingo dira.

Jakinarazpenetarako, **8. ERANSKINean** jasotako aitorpena aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta sinatuta.

14.6. ESKAINTZEN AURKEZPENARI BURUZKO ARGIBIDEAK:

Interesdunen proposamenek bat etorri beharko dute lizitazioa arautzen duten agiriekin eta dokumentazioarekin, eta proposamenok aurkeztuz gero ondorioztatuko da lizitatzaileak agiri honetako eta gainerako kontratu-dokumentuetako klausulak baldintzarik gabe onartzen dituela, inolako erreserbarik eta salbuespenik gabe, eta baimena ematen diola balorazio-batzordeari edo kontratazio-organoari kontratuaren adjudikazio-prozesuko edozein unetan Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan zein datu-base nazionalean jasotako datuak kontsultatzeko (azken kasuan, doan atzi badaitezke).

Proposamena aurkeztutakoan, lizitatzaileak ezingo du hura kendu, ezinbesteko kasu arrazoituetan izan ezik.

Lizitatzaileek karatularen **13. puntuan** aipatutako epean eutsi beharko diote beren eskaintzari; epe hori eskaintzak aurkezteko ezarritako epea bukatzen den egunetik aurrera zenbatuko da.

14.7. KANPO UZTEKO EDO BAZTERTZEKO ARRAZOIAK ETA ARGIBIDE-ESKAERA.

14.7.1.- Inguruabar hauetako edozeinetan dagoen proposamen oro lehiaketatik kanpo utziko da, erakunde kontratatzaileak horretarako arrazoiak emanda:

a) Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.

b) Eskatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala ez egiaztatzea.
c) Eskaintza ekonomiko bat baino gehiago aurkeztea, bakarka zein beste lizitatzaile batzuekin aldi baterako elkartuta.
d) Oinarrizko lizitazio-aurrekontua edo gehienekotzat jotzen diren prezio unitarioak gainditzea.
e) Agiri honetan (10. eranskinean) jasotako eskaintza ekonomikoaren eredua funtsean aldatzea.
f) Zenbatekoan akats nabaria edukitzea.
g) Kontraesanak, ez-egiteak edo akatsak, edukia ziurtasun osoz ezagutzea eragozten dutenak edo aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak, izatea.
h) Bideraezin egiten duen akats edo funsgabetasun bat edukitzea.
i) Oinarri teknikoen agirian, administrazio-klausulen agirian zein karatulan jasotako baldintzak edo betekizunak ez betetzea.
j) Dokumentazioa karatulan adierazitakoaz bestelako gutun-azal baten barruan sartzea eta horrek eskaintzaren sekretua arriskuan jartzea.
k) Edukia irakurtzea edo atzitzea eragozten duen birus bat edukitzea.

14.7.2.- Erakunde kontratatzaileak adjudikazio-proposamena egin aurreko edozein unetan bildu ahalko ditu eskaintzak ulertzeko behar dituen argibideak. Inoiz ez da onartuko lizitatzaileek argibideak aurkeztuz eskaintzan adierazitako baldintzak aldatzerik.

14.7.3.- Kanpo utzitako proposamenak dagokien aktan edo eginbide bitartez jasoko dira, kanpo uztea eragin duten arrazoiekin.

15. PROPOSAMENEN EDUKIA.

Aurkezten diren proposamenak, hasiera batean, hiru gutun-azalez osatuta egongo dira. Gutun-azalok lizitatzaileak edo hura ordezkatzen duen pertsonak elektronikoki sinatuta egongo dira, eta bakoitzean honako hau jasoko da:

- Lehiaketaren izena eta edukia.
- Lizitatzailearen eta hura ordezkatzen duen pertsonaren izena.
- Harremanetarako telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa.

15.1. (1) GUTUN-AZALA: AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA.

15.1.1. Gutun-azal honetanegon behar duten dokumentuak:

1.- Eragile ekonomikoaren kontratazio-agiri europar bakarra (KAEBa), behar bezala beteta.

https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es helbidean eta kontratatzailearen profilean argitaratutako xml fitxategian beteko da.

Era berean, administrazio-klausuletako 15.1.3 klausulan jasotako kasuetan bidezkoak diren KAEBak aurkeztuko dira.

2.- Behin-behineko bermea, kontratuaren karatularen **10.1 puntuan** eskatzen bada.

3.- Baliabideak atxikitzeko konpromisoa, **2. ERANSKINEAN** jasotako ereduaren arabera.
4.- Prestazioa egikaritzeko arduradunaren izena eta lanbide-kualifikazioa, kontratuaren karatularen **15.4 puntuan** eskatzen bada.
5.- Eragile ekonomikoak emandako datuak konfidentzialak direlako adierazpena, **3. ERANSKINEAN** jasotako ereduaren arabera.
6.- Formalki ABEEa eratzeko konpromisoa, **4. ERANSKINEAN** jasotako ereduaren arabera.
7.- Eragile ekonomikoak kontratuaren xede den jarduera gauzatzen duten langileei dagokienez hartzen dituen konpromisoei buruzko adierazpena, **5. ERANSKINEAN** jasotako ereduaren arabera.
8.- Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluarekin bat etorriz enpresa-talde berekoak diren zenbait eragile ekonomikok eskaintza aurkezten badute, **6. ERANSKINA** bete beharko da.
9.- Kontratuaren karatularen **4. puntuaren** arabera sortak badaude, **7. ERANSKINA** beteko da eskaintza zein sortatarako aurkezten den adierazteko eta azaltzeko, kontratuaren karatularen **5.2 puntuak** zenbait sortatarako eskaintza integratzaileak aurkeztea ahalbidetzen badu, zein sorta-konbinaziotarako aurkezten den eskaintza.
10.- Enpresa atzerritarrak badira eta kontratua Espainian egikarituko bada, enpresok adierazpen bat erantsi beharko dute; horren bidez, Espainiako edozein ordenatako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren pean jarriko dira kontratuaren ondorioz zuzenean zein zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako eta uko egingo diote, behar izanez gero, lizitatzaileari dagokion jurisdikzio-foruari.
11.- Europar Batasunaz kanpoko estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu ez duten estatuetako pertsona fisikoak edo juridikoak badira, SPKLaren 68.1 artikuluan araututako txostena aurkeztu behar dute.
12.- Lehiaren defentsari buruzko adierazpena, **9. ERANSKIN**aren arabera beteta eta sinatuta.

15.1.2. ABEE-en kaudimen-metaketa.

ABEEaren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala zehazteko, hura osatzen duten eragile ekonomikoetako bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira.

Kontratuaren karatularen **15.2 puntuaren** arabera klausula horretan adierazitako kaudimenaren ordez bertan jasotako sailkapena erabil badaiteke eta ABEEko eragile ekonomiko guztiek sailkapena badaukate, zerbitzu-kontratista gisa dituzten banakako sailkapenak metatuko dira, adierazitako sailkapen globalera iritsi ahal izateko.

Hala ere, eragile ekonomiko guztiek ez badaukate sailkapena, ABEEak eskatutako kaudimen-betekizunak betetzen dituela ondorioztatuko da kide guzti-guztien ezaugarriak metatuta elkarteak betekizun hauetako bat betetzen duenean:

- Kontratuaren karatularen 15.1 puntuan aipatutako kaudimen-betekizunak.
- Kontratuaren karatularen 15.2 puntuan aipatutako taldea, azpitaldea eta kategoria.

15.1.3. Kontratazio-agiri europar bakarrari (KAEBari) dagozkion berariazko arauak.

a) Kontratua sortatan zatituta dagoenean eta hautespen-irizpideak, hau da, kaudimena egiaztatzeko bideak, sortaz sorta aldatzen direnean, sorta bakoitzeko KAEB bat aurkeztu beharko da. Hala ere, kaudimena egiaztatzeko bideak sorta guztietarako berberak badira eta betekizunen aldaketari eragiten diona denean zenbat sortatarako aurkezten duen eskaintza eragile ekonomikoak, guztietarako KAEB bakarra beteko da.

b) Azpikontratistak:

Karatularen **29.1 puntuan** xedatutakoa gorabehera, karatularen **29.2 puntuaren** a) letran hala zehazten bada, hirugarrenekin azpikontratatzeko asmoa duten eragile ekonomikoek KAEBaren II. zatiaren D atala bete behar dute eta, bertan, datu hauek eman behar dituzte:

- kontratuaren zein zati aurreikusten duten azpikontratatzea,
- zati horretatik edo zatietako bakoitzetik zein ehuneko aurreikusten duten azpikontratatzea
- eta azpikontratistaren edo azpikontratisten izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoari buruzko baldintzei dagokienez definituta.

Kontraturen karatularen **29.2 puntuaren** b) letran hala zehazten bada, eragile ekonomikoek, 15.1.3 klausulan jasotako datuez gain, azpikontratatuko duten pertsonaren KAEBa erantsi beharko dute (II. zatiaren A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta) edo, pertsona bat baino gehiago badira, azpikontratatuko duen pertsona adina KAEB, behar bezala sinatuta.

c) Kaudimena kanpoko baliabidez eratzea:

Eragile ekonomikoak beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak baliatzen baditu, bere KAEBa ez ezik baliatutako kaudimenaren edo baliabideen jabeak diren erakundeetako bakoitzarena ere aurkeztu beharko du (pertsona edo eragile adina KAEB), sinatuta eta II. zatiaren A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta, baita IV. zatia ere, hala badagokio.

d) ABEEak:

Zenbait eragile ekonomikok ABEE batean parte hartu nahi badute, KAEB bereizi bat aurkeztu beharko dute; bertan, II., III. eta IV. zatietan eskatutako informazioa jaso beharko da parte hartzen duen eragile ekonomiko bakoitzeko.

e) Sailkapena:

Kaudimenaren ordez karatularen **15.2 puntuan** aipatutako sailkapena erabili nahi bada, KAEBaren II. zatiaren A atalean egokitzen diren taldeak, azpitaldeak eta kategoriak aipatu beharko dira, balorazio-batzordeko kideek ofizioz eskuratu ahal izan dezaten sailkapen hori jasotzen duen ziurtagiria.

f) Kanpo uzteko arrazoiak:

III. zatiaren D atalean xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek jotzen dira kanpo uzteko arrazoi soilki nazionaltzat (SPKLaren 71.1 artikuluaren d) letra):

- Lanpostuen % 2 desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatzeko kuota ez betetzea, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 42. artikuluaren arabera.

- 250 langile baino gehiagoko eragile ekonomikoak izanez gero, berdintasun-plan bat edukitzeko betebeharra ez betetzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

15.2. (2) GUTUN-AZALA: EBALUATZEKO BALIO-JUDIZIOA EGITEA ESKATZEN DUTEN IRIZPIDEEI (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIRENEI) BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

(2) gutun-azalean karatularen **18.2 puntuan** edo oinarri teknikoen agirian zehaztutako dokumentazioa sartuko da.

Gutun-azal horretan ez da inoiz sartu behar modu objektiboan (formulen bidez) kuantifika daitekeen informaziorik.

15.3. (3) GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

(3) gutun-azalean karatularen **18.3 puntuan** edo oinarri teknikoen agirian zehaztutako dokumentazioa erantsi beharko da.

Gutun-azal horretan ez da inoiz sartu behar balio-judizio bidez kuantifika daitekeen informaziorik.

III.- PROZEDURARI BURUZKO BERARIAZKO XEDAPENAK: KALIFIKAZIO-, ESLEIPEN- ETA FORMALIZAZIO-FASEAK

16. BALORAZIO-BATZORDEA.

16.1. BALORAZIO-BATZORDEA.

Karatularen **12. puntuan** adierazten bada kontratuaren erregulazio harmonizatua egin behar dela, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian azaltzen diren osaera eta eginkizunak izango dituena.

Karatularen **12. puntuan** adierazten bada ez dela kontratuaren erregulazio harmonizaturik egin behar, ez da balorazio-batzorderik eratuko, eta erakunde kontratatzaileak hartuko ditu gain jarraian batzordearentzat azaltzen diren eginkizunak. Hala ere, kasuko inguruabarrak ikusita, kontratazio-organoak balorazio-batzorde bat eratzea erabaki ahalko du erregulazio harmonizaturik egin behar ez zaion kontratu baten lizitazioa hasteko erabakian, eta, hala izanez gero, bertan osaera eta eginkizunak arautuko ditu.

16.2. OSAERA.

Balorazio-batzordearen osaera, halakorik egonez gero, kontratuaren karatularen 2.3.3 puntuan identifikatzen da.

16.3. ERAKETA:

Balorazio-batzordearen eraketa balioduna izateko, kontratazio-organoko burutzaren, idazkaritzaren eta aholkularitza juridikoaren eginkizunak aginduta dauzkatenek joan beharko dute gutxienez. Balorazio-batzordearen bileran kontratuaren xedeari buruzko erabaki teknikoak hartu behar badira, eraketa balioduna izateko, aurrekoaz gain, ezinbestekoa izango da kontratazio-organoko aholkularitza teknikoaren eginkizuna esleituta daukan kidea egotea.

Balorazio-batzorderako deialdiak idazkariak edo izendatutako pertsonak egingo ditu, batzordeburuak aginduta, gutxienez 48 ordu lehenago.

16.4. EGINKIZUNAK.

Kide anitzeko organoak Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluan azaldutako eginkizunak beteko ditu.

16.5. ERABAKIAK HARTZEA:

Balorazio-batzordearen erabakiek bertaratutakoen gehiengo soila beharko dute. Berdinketa badago, batzordeburuaren kalitateko botoak erabakiko du.

16.6. BALORAZIO-BATZORDEARENTZAKO LAGUNTZA TEKNIKOA:

Balorazio-batzordeak egiten diren bileretara teknikariak joan daitezela eskatu ahalko du, aholkularitza espezializatua emateko bakarrik.

17. PROPOSAMENAK IREKITZEA.

17.1. (1) GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA SAILKATZEA.

Eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan eta balorazio-batzordea edo, halakorik ezean, kontratazio-organoa aurreko apartatuan xedatutako moduan eratu ondoren, bilkura pribatuan eta (2) gutun-azala ireki baino lehen, (1) gutun-azalean jasotako dokumentazioa aztertu eta sailkatuko du.

(1) gutun-azalak irekitakoan, balorazio-batzordeak ondorioztatzen badu aztertutako dokumentazioa zuzena eta nahikoa dela betekizunak betetzen direla egiaztatzeko, lizitatzailea prozeduran onartzea erabakiko du.

Gutun-azalotan jasotako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo ez-egiteak ikusten baditu edo dokumentazio horri buruzko argibideren bat beharrezkoa iruditzen bazaio, **3 egun balioduneko epea** emango du akats edo ez-egite horiek egin dituzten lizitatzaileek bidezkoak diren zuzenketak egin edo argibideak eman ditzaten.

Behin emandako epea igarota, balorazio-batzordeak, hala badagokio, zuzenketa-fasean aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du eta lizitatzaileak onartzea edo kanpo uztea erabakiko du.

Dena den, zuzendu ezin diren gabezia materialak nahiz funtsezko akatsak ikusten badira edo lizitatzaileak ikusitako gabeziak zuzentzen ez baditu, haren proposamena baztertu egingo da.

Akta egingo da eta burututako guztia bertan jasota geratuko da.

Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da; baten bat baztertuz gero, horretarako arrazoiak azalduko dira.

17.2. (2) GUTUN-AZALA IREKITZEA.

Behin (1) gutun-azala irekitakoan eta, hala badagokio, akatsak zuzendu ostean, balorazio-batzordeak (2) gutun-azala ireki eta irakurriko du.

Egokia baderitzo, balorazio-batzordeak (2) gutun-azalak kontratazioa sustatzen duen sailari bidaltzea erabaki ahalko du, haietako dokumentazioa azter eta balora dezan. Halaber, horretarako beharrezkoak iruditzen zaizkion txosten eta aholku guztiak eskatu ahalko ditu. Era berean, aurkeztutako edozein dokumenturi buruzko azalpenak eskatu ahalko dizkie lizitatzaileei.

Ebaluazioa egitean egiaztatzen bada eskaintzaren bat agiriekin bat ez datorrela edo beste gutun-azal batean aurkeztu behar diren dokumentuak edo datuak jasotzen dituela, inguruabar hori jasota utziko da.

Akta egingo da eta burututako guztia bertan jasota geratuko da, baita kontratuaren karatulan azaldutako adjudikazio-irizpideen arabera (2) gutun-azaleko dokumentazioari buruz egiten den balorazioa ere.

17.3. (3) GUTUN-AZALA IREKITZEA.

Behin (2) gutun-azalak aztertu eta ebaluatutakoan, balorazio-batzordea eratuko da, karatularen **20. puntuan** aipatutako lekuan, egunean eta orduan, jarraian adierazten diren jarduketak egiteko.

Lizitatzaileei ekitaldira birtualki, hura webgunean *streaming* bidez emanez, joateko gonbidapena egingo zaie, dagozkien gutun-azalak aldatzen ez direla egiazta dezaten.

17.3.1. Balio-judizioa egitea eskatzen duten irizpideak erabiltzen badira:

a) (2) gutun-azalen balorazioaren emaitzaren berri emango da eta, hala badagokio, eskaintza edo eskaintzak baztertzea erabakiko da.
b) (3) gutun-azala ireki eta irakurriko da.
c) Eskaintza bakoitzari puntuazioa esleituko zaio eta, hala badagokio, baztertutako eskaintzen eta baztertzeko arrazoien berri emango da.

Akta egingo da eta burututako guztia bertan jasota geratuko da.

17.3.2. Balio-judizioa egitea eskatzen duen irizpiderik erabiltzen ez bada:

Aurretiazko jarduketak egin ostean, balorazio-batzordeak onartutako eskaintzak eta, hala badagokio, baztertutakoak ezagutaraziko ditu, (3) gutun-azalak irekiko ditu, eskaintza bakoitzari puntuazioa esleituko dio eta, hala badagokio, baztertutako eskaintzen eta baztertzeko arrazoien berri emango du.

18. ESKAINTZEN SAILKAPENA.

Balorazio-batzordeak edo, halakorik ezean, kontratazio-organoak aurkeztutako proposamenak beheranzko ordenan sailkatuko ditu eta, ondoren, sailkapena balorazio-batzordeak egiten badu, dagokion proposamena egingo dio kontratazio-organoari.

Sailkapena egiteko, karatularen **16. puntuan** aipatutako adjudikazio-irizpideei jarraituko zaie eta behar diren bilkuretan jarduketa hauek egingo dira:

a) Administrazio-klausuletako 14.7 klausulan ezarritako **baztertzeko arrazoietakoren** bat betetzen den egiaztatuko du eta, hala badagokio, ondorioz kanpo uzteko erabakia hartuko du.

b) Onartu diren eskaintzek kontratuaren karatularen **16.2.3 puntuan** ezarritako mugak gainditzen dituzten egiaztatuko du, halakorik egonez gero, eta, eskaintzaren batek gainditu egiten baditu, SPKLaren 149.4 artikuluan xedatutako jarduketak egingo ditu. Balorazio-batzordeak entzunaldi-epea zehaztuko du, eskaintzen ezaugarriak kontuan hartuta; epe hori ezingo da izan ez **bost (5) egun baliodun** baino laburragoa, ez **hamar (10) egun baliodun** baino luzeagoa.

   Prozedura hori bukatutakoan, balorazio-batzordeak erabakiko du kontratazio-organoari haren aburuz bete ezin diren eskaintzak bazter edo onar ditzala proposatzea.

c) Eskaintzen puntuazioak kalkulatuko ditu eta onena zein den zehaztuko du, bakoitzak adjudikazio-irizpide guzti-guztietan lortutako puntuak batuz.

   Kalkulua egiteko, ez dira kontuan hartuko baztertzeko proposatu diren eskaintzak.

   Bi eskaintzak edo gehiagok puntuazio berbera lortzen badute, aurkeztu dituzten lizitatzaileek gehienez **hamar (10) egun balioduneko** epea edukiko dute berdinketa hausteko berariazko irizpideak betetzen dituztelako egiaztagiriak aurkezteko, kontratuaren karatularen **17. puntuan** horretarako irizpiderik eman bada. Kontratuaren karatularen **17. puntuan** berariazko irizpiderik ezarri ez bada, administrazio-klausulen agiri honen 19. klausulan jasotako irizpideei jarraituko zaie berdinketa hausteko.

19. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK.

Kontratuaren karatularen **17. puntuan** berdinketa hausteko berariazko irizpiderik xedatuta ez badago, kontratuaren adjudikazio-irizpideak aplikatu ostean zenbait eskaintzaren arteko berdinketa hausteko irizpide sozial hauek aplikatuko dira, hurrenkera honetan, eskaintzak aurkezteko epea bukatu zen uneko egoera kontuan hartuta:

a) Lizitatzaile baten plantillan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa egotea; ehuneko bera badute, desgaitasuna duten langile finko gehien edukitzea plantillan, edo gizarteratzen ari diren langile gehien edukitzea plantillan.

b) Lizitatzaile baten plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiagoa egotea.

c) Lizitatzaile baten plantillan enplegatutako emakumeen ehuneko handiagoa egotea.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta ezin izan bada berdinketa hautsi.

Irizpide horiek aplikatzeko, lizitatzaileek egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio, lan-kontratuak, Gizarte Segurantzarako kotizazioari buruzko dokumentuak eta zuzenbidean onartua dagoen eta arestian aipaturiko irizpide sozialak egiaztatzen dituen beste edozein dokumentu aurkeztuz.

20. ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA.

Balorazio-batzordeak, aurkezturiko eskaintzak ikusita, eta behin betiko baloraziorako behar dituen txostenak eskatu ostean, aurkeztutako proposamenak beheranzko ordenan sailkatuko ditu, karatularen 16. puntuan ezarritako adjudikazio-irizpideei jarraikiz.

21. ADJUDIKATU AURRETIK DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

21.1. ESLEIPENA EGIN AURREKO DOKUMENTAZIOA: DOKUMENTUEN ZERRENDA.

Balorazio-batzordearen proposamena onartutakoan, kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari, SPKLaren 145. artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar **(10) egun balioduneko epea**n, errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera zenbatuta, zenbait egiaztagiri aurkez ditzan: SPKLaren 140. artikuluaren 1. apartatuaren a), b) eta c) letrek hizpide dituzten inguruabarren egiaztagiriak, lehenago aurkeztu ez baditu, bai lizitatzaileari bai baliatuko dituen gainerako enpresei dagokienez (alde batera utzi gabe, halere, artikulu horren 3. apartatuko bigarren paragrafoan ezarritakoa);

- 76.2 artikuluaren arabera kontratuaren betearazpenari eskaini edo atxikitzeko hitzeman dituen baliabideak egiazki badituelako egiaztagiria;
- eta behin betiko bermea eratu duelako egiaztagiria, karatularen **10.2 puntuan** berme hori behar dela ezartzen bada.

Jarraian, adjudikatu baino lehen aurkeztu beharreko dokumentazioa zerrendatzen da:

1.- Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko:

- Pertsona juridikoak diren lizitatzaile espainolek eratze-eskritura edo -dokumentua, estatutuak edo fundatze-akta aurkeztuko dituzte jarduteko gaitasuna egiaztatzeko. Agiri horiek jarduera erregulatzen duten arauak jasoko dituzte eta, behar izanez gero, egokia den erregistro publikoan inskribatuta egongo dira, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.
- Espainolak ez diren lizitatzaileek, Europar Batasuneko estatu kideetakoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak badira, SPKLaren 84.2 artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.
- Gainerako lizitatzaile atzerritarrek SPKLaren 84.3 artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

2.- Ahalordea:

Eskaintza sinatzen duen pertsonak bere izenean jarduten ez duenean edo lizitatzailea sozietatea edo pertsona juridikoa denean, sinatzen duen pertsonak horretarako nahikoa den ahalordea aurkeztu behar du. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, ahalordeak dagokion erregistro publikoan inskribatuta egon behar du, baldin eta, pertsona juridiko motaren arabera aplikagarria den araudiarekin bat etorriz, inskripzioa nahitaezkoa bada.

3.- Kaudimena:
Kontratuaren karatularen **15.1 puntuaren** arabera nahitaezkoa denean gutxieneko kaudimen-betekizun batzuk betetzea, lizitatzaileak kontratuaren karatularen **21.1 puntuan** aipatutako dokumentazioa aurkeztu behar du hori egiaztatzeko, betekizunon ordez sailkapena aukeratu ezean.

4.- Enpresa- edo lanbide-gaikuntza:
Kontratuaren karatularen **15.3 puntuan** adierazten bada eskaintzak aurkezteko azken egunean gaikuntza eduki behar dela.

5.- Lizitatzaileak kontratuaren betearazpenari atxikitzeko hitzeman dituen baliabide materialen eta giza baliabideen eskuragarritasuna, hala badagokio:
Kontratuaren karatularen **15.5** eta **21.2 puntuetan**jasotako dokumentazioa.

6.- Beste erakunde batzuen kaudimenaren eta baliabideen eskuragarritasuna kontratuaren indarraldi osoan:
Lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak baliatu baditu, **11. ERANSKINEAN** jasotako **«Beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak xedatzeko konpromisoa»** aurkeztu beharko du.

7.- Kontratatzeko debekurik eza:
Kontratatzeko debekurik ez daukala egiaztatzeko dokumentazioa, SPKLaren 85. artikuluan xedatutakoaren arabera (**12. ERANSKINA).**

8.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea:
Sektore publikoarekin kontratatzeko zerga-betebeharrak egunean dauzkalako ziurtagiriak eta sektore publikoan kontratatzeko Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dauzkalako ziurtagiria. Lizitatzaileak lurralde batean baino gehiagotan ordaindu behar baditu zergak, Administrazio eskudun guzti-guztiek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

9.- Bermea:
Behin betiko bermea (kontratuaren karatularen **10.2 eta 10.3 puntuetan** eskatzen ez bada izan ezik) eta, hala badagokio, berme osagarria eratu dituelako egiaztagiria.

10.- Publizitate-gastuak:
Kontratuaren karatularen **23. puntuan** hala agintzen bada, egoki diren publizitate-gastuak ordaindu direlako egiaztagiria.

11.- Erreserbatutako kontratuak:
Kontratuaren karatularen **12. puntuarekin** bat etorriz kontratua erreserbatuta badago, lizitatzaileak agiri bidez egiaztatu behar du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.

12.- Lan-baldintzei buruzko informazioa:
27.3 klausulan ezarritakoaren arabera, **14. ERANSKINA** bete beharko du.

Aurretiaz kopia sinple bidez aurkeztutako agirietatik eska daitezkeen jatorrizkoak, hala badagokio.

Ziurtagiriok bide elektronikoz, informatikoz zein telematikoz egin ahalko dira.

Administrazio-klausulen agiriaren 14.6 klausulan aipatutako erregistro, zerrenda eta datu-baseetan inskribatuta egoteak klausula horretan azaldutako ondorioak edukiko ditu erregistro, zerrenda eta datu-base horietan jasotako datuen egiaztapenari dagokionez, atzipenak doakotasun-betekizuna betetzen badu.

21.2. ESLEIPENA EGIN AURREKO DOKUMENTAZIOA EPEAREN BARRUAN EZ AURKEZTEA: ONDORIOAK.

Kontratazio-organoak adjudikazio-prozeduran atzera egiten badu edo dagokion deialdian iragarri den kontratu bat ez adjudikatzea edo sinatzea erabakitzen badu, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko die. Halaber, Europako Batzordeari ere emango dio horren berri kontratua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarri bada.

Kontratazio-organoak erabaki ahalko du kontratua ez adjudikatzea edo sinatzea zein prozeduran atzera-egitea, formalizatu baino lehen. Horrelakoetan, lizitazioan parte hartzeko egokiak diren hautagaiei edo lizitatzaileei konpentsazioa emango zaie egin dituzten gastuengatik, karatularen **22. puntuan** xedatutako moduan.

22. KONTRATUA EZ ADJUDIKATZEKO EDO SINATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA.

Kontratazio-organoak adjudikazio-prozeduran atzera egiten badu edo dagokion deialdian iragarri den kontratu bat ez adjudikatzea edo sinatzea erabakitzen badu, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko die. Halaber, Europako Batzordeari ere emango dio horren berri kontratua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarri bada.

Kontratazio-organoak erabaki ahalko du kontratua ez adjudikatzea edo sinatzea zein prozeduran atzera-egitea, formalizatu baino lehen. Horrelakoetan, lizitazioan parte hartzeko egokiak diren hautagaiei edo lizitatzaileei konpentsazioa emango zaie egin dituzten gastuengatik, karatularen **22. puntuan** xedatutako moduan.

23. KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA, EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA.

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta gehienez bost egun baliodunetan adjudikatuko du kontratua.

Ezingo da adierazi lizitazio bat hutsik dagoenik baldin eta agiri honetan jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

Adjudikazio-ebazpenak arrazoituta egon beharko du eta hautagai eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie. Horretarako, 15 eguneko epean argitaratu beharko da kontratatzailearen profilean.

SPKLaren 155. artikuluaren 1. apartatuan ezarrita dagoena eragotzi gabe, aurreko paragrafoetan aipatutako jakinarazpenak eta publizitateak behar den informazioa jaso beharko dute adjudikazio-

prozeduran interesatuta daudenek funts nahikoa duen errekurtsoa jarri ahal izateko adjudikazio-erabakiaren aurka.

Jakinarazpenean adieraziko da zein epetan formalizatu behar den kontratua SPKLaren 153. artikuluaren 3. apartatuaren arabera.

44. artikuluko errekurtso berezi baten ebazpenaren edukiaren ondorioz kontratazio-organoak beste lizitatzaile bati adjudikatu behar badio kontratua, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaile horri agiri honen 21. klausulan jasotako dokumentazioa aurkezteko.

Jakinarazpena bide elektronikoz egingo da, SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz.

24. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA.

Kontratua SPKLaren 153. artikuluak ezartzen dituen baldintzak eta epeak betez formalizatuko da. Sortaka adjudikatutako kontratuetan, sorta bakoitzerako kontratu bat egingo da, eskaintza integratzaileak aurkezten direnean izan ezik; kasu horretan, eskaintza guztiek kontratu bat eratuko dute.

Kontratuaren formalizazioa arau hauekin bat etorriko da:

- SPKLaren 44. artikuluaren arabera kontratuaren aurkako errekurtso berezia jarri ahal bada, ezingo da formalizatu lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazio-jakinarazpena bidali zaienetik hamabost egun baliodun igaro arte.
- Kontratazio-organoaren menpeko zerbitzuek errekerimendua egingo diote adjudikaziodunari gehienez ere bost eguneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera zenbatuta, kontratua formaliza dezan, aurreko paragrafoan xedatutako epea igarota errekurtsorik jarri ez bada eta, beraz, kontratuaren formalizazioa eten behar ez bada. Era berean jardungo du errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etendura kendu duenean.
- Gainerako kasuetan, lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioa SPKLaren 151. artikuluan xedatutako moduan jakinarazi eta gehienez ere hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da kontratua.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada aipatutako epean formalizatzen, oinarrizko lizitazio-aurrekontuaren % 3 (BEZik gabe) eskatuko zaio zigor moduan. Behin betiko bermetik hartuko da lehenik eta behin, halakorik eratu bada, SPKLaren 71. artikuluaren 2. apartatuaren b) letran ezarritakoa eragotzi utzi gabe.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatuko zaio, eskaintzak sailkatu diren hurrenkerari jarraituz, SPKLaren 150. artikuluaren 2. apartatuan ezarritako dokumentazioa aurkeztu ondoren. Horretarako, aurreko apartatuan ezarritako epeak aplikatuko dira.

Kontratuen formalizazioa eta dagokion kontratua kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira kontratua burutu eta gehienez ere hamabost eguneko epean. Kontratuaren

erregulazio harmonizatua egin behar denean, formalizazioaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere argitaratu beharko da.

Kontratuaren karatularen 11.1 puntuan behin-behineko bermea eskatzen bada, kontratua formalizatu ostean automatikoki azkenduko da eta berehala itzuliko zaie kontratista bihurtu ez diren lizitatzaile guztiei. Bermea itzultzeko, aurkezteko erabilitako araubide bera baliatuko da.

IV.- KONTRATUAREN BETEARAZPENA.

25. KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Erakunde kontratatzaileak kontratuaren jarraipena eta betearazpen arrunta egiteko dauzkan eginkizunak gorabehera, kontratuaren arduradunari dagokio lanak gainbegiratzea eta ikuskatzea. Arduradunak eginkizun hauek beteko ditu:

a) Kontratazio-organoari lan-programa onets dezala proposatzea.
b) Prestazioa ondo egiten dela ziurtatzeko behar diren jarraibideak ematea, idatziz.
c) Emandako zerbitzuen ziurtapena edo ziurtapenak onestea eta kontratistak aurkeztutako fakturak egiaztatzea.
d) Kontratistak kontratuaren arabera hartutako betebeharrak betetzen dituela gainbegiratzea eta egiaztatzea, ez-betetzerik egonez gero kontratazio-organoari horren berri ematea eta, hala badagokio, kontratua suntsiarazteko edo zigorrak ezartzeko proposamena egitea.
e) Kontratuaren betearazpenari atxikitzeko hitzeman zituen giza baliabideak eta baliabide materialak aldatzeko baimena ematea.
f) Kontratazio-organoari sartu behar diren aldaketak proposatzea.
g) Kontratistari errekerimendua egitea administrazio-klausulen agiri honetan xedatutako lan-baldintzak betetzen dituela egiazta dezan.
h) Kontratistari dokumentazio gehigarria eskatzea kontratuaren indarraldi guztian hirugarren erakundeen kaudimena edo baliabideak dauzkala egiaztatzeko, kontratuaren adjudikazio-prozeduran parte hartzeko kaudimen edo baliabide horietan oinarritu bazen. Kontratistak enpresa azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko betebeharra betetzen duela egiaztatzea.
i) Betearazpena berandutzen bada, atzerapena kontratistari egozterik badagoen zehazteko txostena egitea.
j) ABEEko kideen lagapenari eta aldaketari dagokienez aurreikusitako txostenak egitea.
k) Kontratistari errekerimendua egitea akta bidez ziurta dezan izaera pertsonaleko datuak zituzten euskarri guztiak itzuli edo fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu dituela kontratua betearazten bukatutakoan.
l) Segidako traktuko kontratuen luzapenari dagokionez aurreikusitako txostena egitea.
m) Kontratistari errekerimendua egitea akta bidez ziurta dezan izaera pertsonaleko datuak zituzten euskarri guztiak itzuli edo fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu dituela kontratua betearazten bukatutakoan.

Kontratuaren arduradunaren izendapena, kontratuaren karatulan jasota dagoena, aldatzen bada, idatziz eta berehala komunikatuko zaio kontratistari.

26. ZERBITZUA EMATEA.

26.1. KONTRATU-DOKUMENTUEN ETA JARRAIBIDEEN MENPE EGOTEA.

Kontratistak kontratua osatzen duten dokumentuetan (4. klausulan zehazten dira) ezarritako baldintzak eta xehetasunak betez emango dio zerbitzua erakunde kontratatzaileari (edo «jabetzari»).

26.2. LAN-PROGRAMA.

Kontratuaren karatularen 11.1 puntuaneskatzen bada, kontratistak lan-programa bat eman beharko dio kontratuaren arduradunari, zazpi (7) egun balioduneko epean kontratua formalizatu eta biharamunetik zenbatuta. Programa horretan, kontratazioa arautzen duten agirietan zehaztutako datuak eta informazioa jasoko dira.

26.3. BAIMENAK ETA ARAUDIA.

Kontratistaren erantzukizun esklusiboa izango da lizentzia guztiak, bai publikoak bai pribatuak, eskuratzea eta bere kontu ordaintzea, baita baimenak, erregelamenduzko erregistroetako altak, homologazioak eta zerbitzuak emateko behar diren eskubide-lagapenak ere. Jabetza horietan izandako akats edo gabeziagatik egin diezaiokeen edozein erreklamaziotatik salbuetsita geratuko da.

Zerbitzuak garatzean, kontratistak egiten duen jarduerari une oro aplikatu beharreko arau, estandar eta jokabide egoki guztiak errespetatu eta beteko ditu, bai alderdi teknikoei bai administrazio-alderdiei dagokienez. Halaber, jabetzan jatorria duten funtzionamendu orokorreko arauei jarraitu beharko die.

26.4. ZERBITZUAK EMAN BITARTEAN EDUKI BEHARREKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA.

Zerbitzuak eman bitartean, kontratistak kontratu-dokumentazioan zerrendatzen diren agiri teknikoak eduki eta eguneratu beharko ditu.

Jatorrizko dokumentazio teknikoa paperean eta formatu elektronikoan egongo da eskuragarri eta beti egongo da jabetzaren eskura; hark, bestalde, dokumentazioa ulertzeko komenigarriak iruditzen zaizkion argibideak edo azalpenak eskatu ahalko ditu.

Behin kontratua amaitu edo suntsiarazitakoan, kontratistak jatorrizko dokumentazio tekniko guztia eman beharko dio jabetzari.

Jabetzak daukan eta zerbitzua egokiro emateko behar den informazio guztia helaraziko dio kontratistari.

26.5. ASEGURUAK.

Kontratistak nahitaezko aseguru guztiak kontratatu behar ditu, baita kontratatuta mantendu ere, hala badagokio, karatulako **24. puntuan** ezartzen diren aseguru espezifikoak ere.

Edozein aseguru-polizaren estaldura ezerezten bada edo irismena aldatzen bada, kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio jabetzari, gutxienez hogeita hamar egun lehenago.

Kontratistak kontratua sinatu baino lehen egiaztatu beharko du aseguruak kontratatu direla eta indarrean daudela. Horretarako, polizen eta prima ordaindu duelako egiaztagirien kopia osoa aurkeztu beharko du. Gainera, jabetzak une oro eskatu ahalko du aseguruen kontratazioa, ordainketa, edukia eta indarraldia agiri bidez egiaztatzeko. Betekizun hori betetzen ez bada, eta ez-betetze kasuei buruz kontratuan ezarritakoa eragotzi gabe, jabetzak egokiak diren aseguruak kontratistaren kontura kontratatzeko aukera gordetzen du. Hori eginez gero, ordainduriko primen zenbatekoa egiten dizkion likidazioetatik kenduko du.

Klausula honetan ezarritako konpromisoen arabera kontratatutako aseguruek ez dituzte mugatuko kontratistari dagozkion betebeharrak eta erantzukizunak. Beraz, egozten zaizkion galera edo erantzukizun guztien erantzulea izango da, eskatutako mugak eta bermeak baino handiagoak zein txikiagoak izan, aseguruaren frankizien muntan.

26.6. LANKIDETZA.

Kontratistak kontratuaren xedea ondo gauzatzeko eta betetzeko behar diren zerbitzu profesional guztiak eman behar dizkio erakunde kontratatzaileari, inolako kostu gehigarririk gabe; adibidez, azalpen-bileretara joango da, jendeari informazioa emango dio eta abar. Halaber, kontratuaren arduradunari prestazioa egikaritzen den lekuetarako sarbide librea emango dio.

26.7. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA.

Kontratista da egiten dituen lanen eta emandako prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea, baita kontratua betearaztean izaten diren ez-egiteek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek erakunde kontratatzaileei edo hirugarrenei sortzen dizkieten ondorioen erantzulea ere.

Kontratistak kontratua betearazteko behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei egiten zaizkien kalte-galera guztien ordaina eman beharko du, SPKLaren 196.2 artikuluan xedatutako kasuetan izan ezik.

Kontratistak jabetza defendatuko du, kalte-ordaina emango dio eta kaltegabe mantenduko du kontratistak zerbitzuak ematearen ondorioz gertatzen diren edo gertatu direla baieztatzen den erreklamazio judizial zein ez-judizialetatik eratorritako kalte, galera, koste eta gastu guztiei (besteak beste, abokatuen arrazoizko zerbitzu-sariei), kalte fisikoengatiko prozedurei edo jabetzari egindako kalteei zein beste edozein-kalte motari dagokienez, salbu eta kalte horiek zuzenean jabetzari egotzi ahal bazaizkio eta haren dolo edo erru larri batek eraginak badira.

Kontratistak kontratu honen arabera hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz jabetza kontratistarekin solidaritatez kopuruak ordaintzera kondenatzen badute, kontratistari jasanaraziko zaio ordaindutako munta. Ondorio horietarako, jabetzak egokia eta komenigarria den edozein administrazio-ekintza zein ekintza judizial erabiltzeko aukera gordetzen du, ordaindutako kopuru guztiak berreskuratu arte.

27. BETEARAZPENEAN ERABILITAKO BALIABIDEAK.

27.1. BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA.

Kontratistak baliabideak atxikitzeko konpromisoan (**2. ERANSKINA)** aipatutako baliabideak atxiki beharko dizkio kontratuaren betearazpenari, konpromiso hori hartu badu, baita kontratu-dokumentuetan ezarritako baldintzen eta epeen arabera kontratua betearazteko behar direnak ere, hala eskatzen bada karatularen **15.5 puntuan.**

Adierazitako baliabide materialak ordeztu nahi badira, ezinbestekoa izango da kontratuaren arduradunari aldez aurretik komunikatzea, hark egiazta dezan, aurkeztutako dokumentuen bitartez, proposaturiko baliabideak eskatzen diren betekizunak betetzen dituela. Hala bada, ordezpena egiteko, arduradunak zazpi (7) egun balioduneko epean eman beharko du baimena. Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu baliabide horrek ez dituela betekizunak betetzen, idatziz komunikatuko dio kontratistari eta erabakirako oinarritzat hartu dituen arrazoiak azalduko dizkio. Kontratistak beste baliabide bat proposatu ahalko du.

Adierazitako giza baliabideak klausula honetan xedatuta dagoen moduan bakarrik ordeztu ahalko dira. Nolanahi ere, ordezpenaren ondorioz lan-ingurunera egokitzeko trabak sortzen badira, egoera hori konpontzeko, ordeztutako pertsonak eta sartuko denak batera lan egingo dute, kostu gehigarririk gabe, behar den denboran.

Ordezpena egiteko, prozedura eta baldintza hauek beteko dira:

a) Kontratistak eskatutako aldaketa:
   Arrazoi egiaztatuengatik ordezpenen bat egin behar badu, idatziz komunikatuko dio kontratuaren arduradunari, hamabost (15) egun baliodun lehenago (lanerako aldi baterako ezintasunagatik edo heriotzagatik izan ezean), eta datu hauek emango dizkio:

   - Ordeztu nahi duen pertsonaren identifikazioa eta ordezteko arrazoia.
   - Eskaturiko betekizunak betetzen dituen hautagai baten proposamena, hori egiaztatzen duten agiriekin batera.

   Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezteko baimena emango du edo, hautagaiak betekizunak betetzen ez dituela ondorioztatzen badu, idatziz komunikatuko dio kontratistari eta erabakirako oinarritzat hartu dituen arrazoiak azalduko dizkio. Kontratistak beste hautagai bat proposatu ahalko du.

b) Erakunde kontratatzaileak eskatutako aldaketa:
   Kontratua ondo betearazteko beharrezkoa iruditzen bazaio norbait ordeztea, idatziz komunikatuko dio kontratistari eta arrazoiak azalduko dizkio. Kontratistak, hamabost (15) egun balioduneko epean, eskaturiko betekizunak betetzen dituen hautagai bat proposatuko du gutxienez eta hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko ditu.
   Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezteko baimena emango du edo, hautagaiak betekizunak betetzen ez dituela ondorioztatzen badu, idatziz komunikatuko dio kontratistari eta erabakirako oinarritzat hartu dituen arrazoiak azalduko dizkio. Kontratistak beste hautagai bat proposatu beharko du, aurreko apartatuan azaldutako moduan.

Arau horiexek aplikatuko dira kaudimena egiaztatzeko aurkeztutako baliabideei dagokienez eta kontratistak lizitazio-fasean beste erakunde batzuen kaudimena edo baliabideak baliatu dituenean.

27.2. LANGILEEI BURUZKO BERARIAZKO ARAUAK.

Zerbitzua emateko atxikitako langileak kontratistaren menpe egongo dira soil-soilik, eta hark edukiko ditu enplegatzaile-izaerari datxezkion eskubideak eta betebeharrak. Ondorio horietarako, betebehar hauek hartzen ditu gain:

a) Kontratuaren betearazpenari atxiki behar dizkion langileak hautatzea, nahiz eta botere adjudikatzaileak ahalmena edukiko duen lanbide-kualifikazioari buruzko betekizunak betetzen dituzten egiaztatzeko, agirietan horrelakorik ezarri bada.
b) Langileria egonkorra izateko eta osaeraren aldaketak puntualak eta arrazoi egiaztatuen ondoriozkoak izateko ahaleginak egitea, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko (hori eskatzeko arrazoiak daudenean). Horren berri emango dio une oro botere adjudikatzaileari.
c) Benetan, modu eraginkorrean eta etengabe gauzatzea kontratuaren betearazpenari atxikitako langileei dagokienez enplegatzaile orori datxekion zuzendaritza-boterea. Bereziki, soldatak negoziatu eta ordainduko ditu, baimenak, lizentziak eta oporrak emango ditu, norbait falta bada ordeztu egingo du, Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak beteko ditu (kotizazioen ordainketa eta prestazioen ordainketa barne, bidezkoa denean), lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak beteko ditu, diziplina-ahala erabiliko du eta alderdi enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanaren ondoriozko eskubide eta betebehar guztiak beteko ditu.
d) Atxikitako langileek beren jarduera agirietan kontratuaren xede gisa zedarriztatutako jardueraren mugak gainditu gabe gauzatzen dutela bermatzea.
e) Plantillakoa den koordinatzaile bat izendatzea gutxienez, zeregin hauetaz arduratzeko:
   - Kontratistaren solaskide jardutea erakunde kontratatzailearen aurrean, alde batetik kontratistaren eta kontratuari atxikitako langileen eta bestetik erakunde kontratatzailearen arteko komunikazioa bideratzeko, kontratua betearaztearen ondoriozko kontu guztiei dagokienez.
   - Lana langileen artean banatzea eta prestazioa ondo gauzatzeko behar diren lan-aginduak eta -jarraibideak ematea.
   - Langileek aginduta dauzkaten eginkizunak ondo betetzen dituztela gainbegiratzea eta lanpostura joaten direla kontrolatzea.
   - Opor-araubidea antolatzea.
f) Kontratuaren betearazpenari atxikitako lantaldearen osaeran izaten diren noizbehinkako zein betiko aldaketen berri ematea erakunde kontratatzaileari.

27.3. LAN-BALDINTZEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Kontratistak hurrengo apartatuetan aipatzen diren datuak eta dokumentuak eman behar dizkio kontratuaren arduradunari, kasu bakoitzean adierazitako epeak eta baldintzak betez:

a) Kontratuaren betearazpenari atxikitako langile bakoitzaren lan-baldintzei buruzko datuak: indarreko legeriaren arabera egokia den bidea erabiliz aurkeztuko dira, **14. ERANSKINEAN** jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren inprimakia behar bezala betez.
b) Emandako datuak egiazkoak direla eta kontratistak enplegatzaile gisa onartzen dituen lan-baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko asmoz kontratuaren arduradunak eskatzen dituen dokumentuak: indarreko legeriaren arabera egokia den bidea erabiliz aurkeztuko dira, kopia eskaneatuaren bitartez.

Kontratuaren arduradunak kontratuaren indarraldiko edozein unetan eska dezake informazio hori, bereziki SPKLaren 130. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

27.4. KONTRATUA BETEARAZTEKO LEKUA.

Prestazioa erakunde kontratatzailearen bulego eta instalazioetatik bereizitako lekuetan gauzatuko da. Hori ezinezkoa bada, plantillak ez nahasteko, kontratistaren langileek, inguruabar zehatzek horretarako bidea ematen badute, ez dute lan-eremurik eta lantokirik partekatuko erakunde kontratatzailearen zerbitzura dauden langileekin. Gainera, kontratistaren langileak eta baliabideak egokiak diren zeinu bereizgarriez identifikatuko dira, adibidez, uniformetasunaren edo errotuluen bitartez.

27.5. KALTEGABETASUN-ARAUA.

Kontratistak klausula honetan ezarritako betebeharrak ez betetzearen ondorioz erakunde kontratatzailea kontratistarekin solidaritatez kopuruak ordaintzera kondenatzen badute, kontratistari jasanaraziko zaio ordaindutako zenbatekoa, egokiak diren legezko ekintzen bidez.

27.6. LANGILEEN SUBROGAZIOA.

Lan-araudiaren arabera langileak subrogatzea bidezkoa bada, zerbitzua ematen ari zen kontratista ez den eragile ekonomiko bati adjudikatzen bazaio kontratua, zerbitzuak ematen ari zenak subrogazioak eragiten dien langileei ordaindu gabeko soldatak eta sortutako Gizarte Segurantzarako kotizazioak ordainduko ditu, kontratua suntsiarazten bada ere. Betebehar hori ez zaio inoiz kontratista berriari egokituko.

Kasu horretan, erakunde kontratatzaileak, aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ostean, kontratistari zor dizkion kopuruak atxikiko ditu soldaton ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatok ordaindu direla egiaztatu arte.

28. LANARI, GIZARTE SEGURANTZARI ETA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI LOTUTAKO BETEBEHARRAK.

Kontratistak lanari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasunari eta osasunari buruz indarrean dauden xedapenak bete behar ditu, eta bereziki:

1.- Gauzatu beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo baten menpe daudenean, kontratistak kasuan kasuko lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren xedapenak bete behar ditu.

2.- Kontratistak laneko segurtasunari eta higieneari dagokienez nahitaezkoak edo beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta hoberen saihesteko.

3.- Era berean, indarreko araudiak lan-arriskuen prebentzioari dagokionez ezarritako betebeharrak beteko ditu eta, kontratatutako jarduera hasi baino lehen, betebehar hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:

a) Indarreko legeriarekin bat datorren prebentziozko antolaketa-modalitate bat ezartzea.

b) Lan-arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratzea, lan-arriskuen prebentziorako plan bat ezarriz eta aplikatuz, Prebentzio-Zerbitzuaren Araudiak, urtarrilaren 17ko 39/1997 EDak onartuak, 2. artikuluan ezartzen duen moduan. Eskakizun hori egiaztatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEk segurtasun- eta osasun-sistemari buruz emandako zuzentarauetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako lan-arriskuen prebentziorako kudeaketa-sistema bat edukiz gero, baldin eta sistema horrek eskaturiko neurriak betetzen diren ebaluatu eta egiaztatzen badu. Beste edozein frogabide egokiren bitartez ere egiaztatu ahalko da betebehar hau betetzen dela.

c) Kontrataturiko jarduerari dagozkien arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza.

d) Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen V. kapituluan xedatutako kontsulta eta partaidetza egiteko modua arautzen duen idatzizko prozedura edo, bestela, segurtasun- eta osasun-batzordearen bileren aktak edukitzea.

e) Ezarritako segurtasun-neurrien betetzearen kontrola arautzen duen prozedura bat edukitzea eta, hala badagokio, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan xedatutako diziplina-neurriak hartzea langile guztien segurtasuna bermatzeko.

f) Arriskuen ebaluazioarekin lotutako prebentziozko baliabideak behar dituzten lanpostuen eta jardueren zerrenda bat edukitzea.

g) Kontratuaren betearazpenean esku hartzen duten langile guztiek, bai enpresakoek bai kanpokoek, lanean hastean berariazko arriskuei, babes-neurriei eta larrialdiko neurriei buruzko informazioa jasotzea eta haien jarduerari eragiten dioten arriskuei buruzko beharrezko prestakuntza jasotzea (31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak), lan-arriskuen prebentziorako planeko prozedurarekin bat etorriz. Zehatz-mehatz, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko prestakuntza egokia ematea.

h) Norbera babesteko ekipamenduak behar badira, eman direlako egiaztagiria edukitzea.

i) Jateko eta atseden hartzeko zerbitzu egokiak, higiene-zerbitzuak eta aldagelak eskura jartzea, langile-kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta.

j) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatzea, halako moduan non langileen atseden-egunak errespetatzen diren eta aparteko orduak egitea salbuespenezkoa den.

4.- Kontratistak kontratuaren betearazpenaren zati bat azpikontratatzen badu, azpikontratei aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu, eta erakunde kontratatzaileari eman beharko dizkio.

5.- Lanak egitean langileei edonolako istripu edo kalteren bat gertatzen bazaie, haren erantzukizuna izango da indarreko arauetan xedatutakoa betetzea, eta inoiz ez erakunde kontratatzailearena.

29. BETEARAZPEN-BALDINTZA BEREZIAK.

Betearazpen-baldintza berezi hauek eta kontratuaren karatularen **26. puntuan** jasotakoak bai kontratistak bai azpikontratistek bete beharko dituzte.

29.1. HIZKUNTZARI BURUZKOAK.

29.1.1. Erakunde kontratatzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan eskuarki euskara erabiliko da. Kontratua betearazteko ondorioetarako, honako honi esaten zaio «eskuarki euskara» erabiltzea:

a) Ahozko komunikazioetan, kontratua betearazteko eginkizunetan erakunde kontratatzailearekin hitz egiten duten eta euskaraz dakiten langileak hizkuntza horretan mintzatuko dira hasieran. Erakunde kontratatzaileak kontratuaren betearazpenari atxikitako langile bati euskaraz hitz egiten badio eta hark ez badu hizkuntza horri buruzko ezagutza nahikorik, betearazpenaz arduratzen den enpresak berehala jarri beharko ditu baliabideak edo euskarazko hizkuntza-gaikuntza nahikoa duten langileak kontratua betearaztearen ondorioz erakunde kontratatzailearekin izandako harremana euskaraz gauzatu ahal izan dadin.
b) Idatzizko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, igorleak eta hartzaileak euskara aukeratu ezean.

29.1.2. Kontratuaren xedea betearazteak herritarrei zerbitzuak ematea barne hartzen duenean edo hirugarrenekiko zein oro har herritarrekiko harremanak dakartzanean, enpresa kontratistak eta kontratua betearazteko harekin harremanetan egon behar duten erabiltzaileek edo pertsonek bai ahoz bai idatziz komunikatzeko, erabiltzaileak edo hirugarrenak aukeratzen duen hizkuntza erabiliko da, kasuan kasu. Aukerarik berariaz jasota ez dagoenean, betearazpenaz arduratzen den kontratistak pertsona fisiko eta juridikoei bidaltzen dizkien jakinarazpen eta komunikazio guztiak bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, fakturak eta beste trafiko-dokumentu batzuk barne. Hala ere, herritar bakoitzak une oro hizkuntza aukeratzeko duen eskubidea egikaritu, eta hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabiltzeko eskatu ahalko du.

Nolanahi ere, kontratistak behar diren baliabide material eta giza baliabide guztiak jarri beharko ditu zerbitzuaren hartzaileentzako arreta, informazioa eta komunikazioa une oro euskaraz eman ahal izateko.

Legea edo hitzarmen kolektibo aplikagarriaren klausulak direla-eta adjudikaziodun berriak azkendutako kontratuari atxikitako langileen kolektiboarekiko lan-harremanen subrogazioa jaso behar badu eta kolektibo horrek kontratu-klausulen agirietan ezarritako betekizunak betetzeko hizkuntza-gaikuntzarik ez badauka, kontratista berriak ordezkatu behar dituen langile subrogatuen plazak betetzeko hizpide den kontraturako eska daitezkeen euskara-ezagutza eta -erabilera betetzen dituzten pertsonak kontratatu beharko ditu.

29.1.3. Kontratuen xedea azterketak, txostenak, proiektuak edo antzeko beste lan batzuk egitea bada, horiek bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira, software-programetako testu- eta soinu-interfazeak barne.

29.2. SOZIALAK EDO ENPLEGUARI BURUZKOAK.

29.2.1. Lanari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasunari eta osasunari buruz indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzea. Bereziki, honako hau ezartzen da:

Kontratistak aplikatu beharreko lan-, lege- edo hitzarmen-araudia eta Gizarte Segurantzaren arloko xedapenak beteko ditu, haren konturako langileei dagokienez, baita azaroaren 8ko 31/1995 Legearen bidez lan-arriskuen prebentzioari buruz eratutako araudia, hura garatzeko xedapenak eta xedapen osagarriak ere. Halaber, lan-eremuan prebentzio-neurriak hartzeari buruzko preskripzioak dakartzaten edo eremu horretan horrelakoak sorraraz ditzaketen beste lege- zein hitzarmen-arau guztiak beteko ditu, baita ITELAZPIk prebentzioari buruz ezarri dituen betekizunak ere.

Horri dagokionez, kontratistak Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak, 171/2007 Errege Dekretuak garatuak, 214. artikuluan enpresa-jardueren koordinazioari buruz ezartzen dituen betebeharrak berariaz hartu beharko ditu aintzat.

Zentroetan sartzeko, langileek lur orotako ibilgailuak gidatzeari buruzko prestakuntza eduki, eta kontratuaren iraunaldian indarrean mantendu beharko dute.

29.2.2. Administrazio-klausulen agiriaren 27.3 klausulan (lan-baldintzei buruzko informazioa) xedatutakoa betetzea.

29.2.3. Kontratuaren betearazpen guztian aplikagarria den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzea, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera. Soldata ezin da inoiz izan dagokiona baino baxuagoa.

29.2.4. Kontratua betearaztearen ondoriozko datu guztiei gardentasun instituzionala ematea.

29.3. AZPIKONTRATISTENTZAKO ETA HORNITZAILEENTZAKO ORDAINKETEN EGIAZTAPENA.

29.3.1. Kontratuaren arduradunari bidaltzea, hark eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten eta hornitzaileen zerrenda zehatza, haien partaidetza burutzen denean, baita ordainketaren epearekin zuzeneko harremana duten bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere.

29.3.2. Kontratuaren arduradunari bidaltzea, hark eskatzen duenean, aurreko puntuan aipatutako azpikontratistentzako eta hornitzaileentzako ordainketak bete direlako egiaztagiria, SPKLaren 216. artikuluan eta Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean legez ezarritako ordainketa-epeen barruan, prestazioa bukatutakoan.

29.4. INGURUMENARI BURUZKOAK.

Ingurumenaren babesa eta jasangarritasuna ITELAZPIren konpromiso irmoak dira eta, beraz, erakundearen jarduketa guztietan aintzat hartzen dira. Hori dela-eta, ITELAZPIrekin elkarlanean aritzen diren enpresek zeharo bat egin behar dute balio horiekin, erabateko sintonian.

Kontratu honen esparruan, kontratistak bereziki zaindu behar du sortzen dituen edo deuseztatzeko eskumena dagokion hondakinei tratamendu zuzena ematen zaiela. Horretarako, beti jardungo du kudeatzaile baimendu baten bitartez eta, puntu horretan, ITELAZPIren zerbitzu teknikoen jarraibideak beteko ditu.

Era berean, paper-kontsumoa txikiagotzeko asmoz, mandatuan sortutako dokumentazioa, ahal bada, euskarri elektronikoan emango da, posta elektronikoz, zerbitzari baten bidez (dokumentuak deskargatzeko estekak emanez edo antzeko modu batean) edo, besterik ezinda, CD, DVD edo antzeko gailu birgrabagarri eta ireki batean (gero berrerabiltzeko aukera eman behar du).

Paperean inprimatu behar denean, jarraibide hauek beteko dira:

- Kopia-kopurua aldez aurretik ezarri, eta ezinbestekoak baino ez dira egin behar.
- Gutxienez paperaren edukiaren % 20k baso-ustiategi jasangarrietatik datozen zur-zuntzak (FSC, PEFC edo baliokidea) edo zuntz birziklatuak izan behar ditu.
- Ez du kloro elementalik eduki behar.
- 100 urte baino gehiagoko iraunkortasuna eduki behar du.
- Ahal bada, dokumentuak bi aurpegietan inprimatuko dira, zuri-beltzean eta, egingarria denean, aurpegi bakoitzeko bi orrialde.
- Birziklatzea errazteko moduan azaleztatu behar da.
- Inprimatzeko eta fotokopiak egiteko egokia izan behar du.

Era berean, arlo horri buruz behar den prestakuntza eman behar die kontratistak kontratu honi lotutako langileei.

Halaber, kontratuaren betearazpenaren arduradunak, komunikazio-zentroetan jarduten dutenean, sarrera-pistetan era neurritsuan gidatzen saiatuko dira, isuri kutsagarrien kopurua ahalik eta gehien txikiagotzeko. Modu berean, ekintza guztietan portaera bikaina izango dute, ez dute ingurune naturalera objekturik botako, ingurumena defendatzen laguntzeko haien ustez hobetu beharko liratekeen alderdi guztien berri emango diote ITELAZPIri eta hirugarrenak ingurune naturala defendatzeko politika aurreratuetarantz erakarriko dituzte.

29.5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA.

29.5.1. Mota guztietako zerbitzu-kontratazioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia edozein dela ere, aplikagarriak diren berdintasunari buruzko betearazpen-baldintza bereziak.

Kontratua betearaztean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa bermatuko du.

Kontratua betearazi bitartean, baliatutako dokumentazio, publizitate, irudi eta material guztietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin beharko da, emakumeak diskriminatzen dituzten irudiak edo estereotipo sexista guztiak saihestu beharko dira eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta genero-rol eta -nortasunen aniztasuna barne hartzen dituen irudi bat sustatu beharko da.

Hasierako proposamenean beharrezkotzat jotako baliabide lotuez gain, kontratua betearazteko langile gehiago kontratatu behar badira eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen ordezkaritza

desorekatua badauka plantillan, betearazpen-epe guztian gutxienez beste emakume bat kontratatu beharko du edo, bestela, gutxienez emakume baten aldi baterako kontratua mugagabe bihurtu. Plantilla desorekatua dagoela esango da emakumeen ordezkaritza edo presentzia guztizkoaren % 40 baino txikiagoa denean. Klausula hau pertsona bat baino gehiago kontratatu behar direnean izango da aplikagarria, eta, lan-merkatuaren erantzunik ezagatik betetzen ez bada, enpresa kontratistak arrazoizko bilaketa egin duela frogatu beharko du.

Enpresa kontratistak edo azpikontratistak 10 langile baino gehiago badauzka, kontratuaren betearazpenari atxikitako langileei dagokienez sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena saihesteko neurriak hartzen dituela bermatuko da kontratua formalizatu eta 12 hilabeteko epean. Neurri horiek jokabide egokien kodeak prestatzea eta hedatzea, informazio-kanpainak zein prestakuntza-ekintzak egitea edo prebentziorako berariazko prozedurak eta jazarpenaren biktimak izan direnek jarritako salaketak edo erreklamazioak bideratzeko prozedurak ezartzea izan daitezke.

Azaldutako betearazpen-baldintza bereziak betetzen direlako frogak eman beharko ditu adjudikaziodunak.

29.5.2. Erregulazio harmonizatua egin behar zaien kontratazioetarako berdintasunari buruzko betearazpen-baldintza bereziak:

Enpresa adjudikaziodunak, plantillan 25 pertsona baino gehiago badauzka eta orain arte egin ez badu, kontratuaren betearazpenari atxikitako langileentzako berdintasun-plan bat prestatu eta aplikatzeko konpromisoa hartzen du. Planak barne-funtzionamenduan eta kanporanzko jardueran emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurri zehatzak jaso beharko ditu eta 12 hilabeteko epean egin beharko da, kontratua formalizatzen denetik zenbatuta. Berdintasun-planak, besteak beste, honako gai hauek barne hartu ahalko ditu: prestakuntza-politikak, hautespena, lanbide-sailkapena, arreta, sustapena, ordainsariak, egonkortasuna edo iraunkortasuna, ordezkaritza, laneko segurtasuna eta osasuna eta lanaldiaren iraupena eta antolaketa.

Azaldutako betearazpen-baldintza bereziak betetzen direlako frogak eman beharko ditu adjudikaziodunak.

29.6. BETETZE ETIKOA.

Kontratu honen ondoriozko prestazioak garatzean portaera etikoa izan behar dute bi alderdiek. ITELAZPIk etika-kode bat onartu du, zuzendaritzako kideek eta plantillak sinatua, egiten ditugun jardueren egokitasuna bermatzeko jokabide-eredu jakin batzuk eskatzen dituena; lizitatzaileek gure web-orrian kontsulta dezakete. Halaber, 2015ean Zigor Kodean pertsona juridikoen erantzukizun penalari buruz egindako erreformaren ildotik, ITELAZPIk arrisku penalak kudeatzeko sistema bat ezarri du, zeina duela gutxi ikuskatu eta ziurtatu baita UNE 19601 arauaren arabera.

Hala ere, kontratu baten betearazpenaren esparruan, neurri horiek guztiek korrespondentzia proportzionala eduki behar dute beste alderdi kontratatzailean. Horregatik, interesgarria da lizitatzaileek beren eskaintzan (2. gutun-azalean) adieraztea barneko etika-koderik baduten, nola atzi daitekeen eta arrisku penalak kudeatzeko sistemarik badaukaten.

Enpresa adjudikaziodunak etika- edo jokabide-koderik ez badauka, kontratu honen esparruan ITELAZPIk egina eta onetsia bereganatuko du.

EAEko sektore publikoko arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barne-sistemak ITELAZPI ere barne hartzen du, 2/2023 Legearen eta 89/2023 Dekretuaren baldintzak betetzen badira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Sistemaren ataria kontsulta daiteke:

Barneko informazio-sistema (euskadi.eus)

29.7. LOGOEN EDO MARKEN ERABILERA.

Adjudikaziodunak, «*enpresa hornitzaile*» gisa, baimena ematen dio ITELAZPIri, modu ez-esklusiboan eta doan, haren logoa, marka, izen komertziala, izen soziala edo bestelako zeinu bereizgarriak erabiltzeko, sustapen-, merkataritza- edo dibulgazio-xedeekin soilik, besteak beste aurkezpen korporatiboetan edo erreferentzia komertzial gisa txertatuz. Gainera, eduki horiek, xede berberarekin, jendaurrean egon ahalko dira, ITELAZPIren web-orriaren bidez edo beste plataforma eta komunikazio-sare batzuen bitartez.

Baimen horrek indarrean jarraituko du alderdien artean merkataritza-harremana egon bitartean.

Dena den, kontratuaren iraupena (hala badagokio, luzapena barne) amaitutakoan, ITELAZPIk adjudikaziodunaren logoa, marka, izen komertziala, izen soziala edo bestelako zeinu bereizgarriak erabiltzen jarraitu ahalko du, «*enpresa hornitzaile ohi*» gisa, arestian aipaturiko xedeetarako, adjudikaziodunak berariaz kontrakoa adierazi ezean. Kasu horretan, idatziz komunikatu beharko dio ITELAZPIri, gutxienez baimena bukatu baino hilabete bat lehenago.

Bestalde, ITELAZPIk aitortzen du adjudikaziodunak dauzkala lagatako edukien gaineko jabetza intelektualeko eskubideak eta, beraz, horiek erabiltzeak ez duela horien gaineko eskubiderik sortzen, klausula honetan ezarritakoaz gain.

Era berean, ITELAZPIk hitzematen du eduki horiek ez dituela erabiliko ez-zilegiak diren, arestian aipatutakoen aurkakoak diren, adjudikaziodunaren eskubideei eta interesei kalte egin diezaieketen edo haren ospeari nahiz irudiari kalte egin edo haiek honda ditzaketen xede edo ondorioekin. Halaber, lagatako edukiak ohitura onekin eta fede onarekin bat etorriz erabiltzeko konpromisoa hartzen du.

Elkarrekikotasunari jarraituz, ITELAZPIk baimena ematen dio adjudikaziodunari bere logoa, marka, izen komertziala, izen soziala edo bestelako zeinu bereizgarriak baldintza beretan eta norainoko berberarekin erabiltzeko.

Kontratua indarrean egon bitartean, alderdietako edozeinek errebokatu ahalko du aipaturiko baimena, besteari hilabete bat lehenago komunikatuta.

29.8. DATUAK BABESTEAREN ARLOAN.

Kontratua gauzatzeak kontratistari datuak lagatzea dakarrenean, kontratistak Europar Batasuneko eta Espainiako estatuko araudiak bete beharko ditu datuen babesari dagokionez.

30. KONFIDENTZIALTASUNA, IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA ETA INFORMAZIOA.

30.1. KONFIDENTZIALTASUNA.

Kontratistak eskuratzen duen informazio guztia konfidentziala izango da. Kontratistak eta kontratuaren betearazpenari atxikitako langileek ezin dute daturik beraientzat erabili, ezta hirugarrenei eman ere, kontratazio-organoaren baimenik gabe. Gainera, informazio ororen konfidentzialtasuna gordetzeko eskura dituzten baliabide guztiak jartzera behartuta daude.

Nolanahi ere, datu pertsonalen tratamendurik ez dakarten lanak egitean, debekatuta dago horrelako datuak eskuratzea eta ezinbestekoa da ezagut daitezkeenak sekretupean gordetzea.

30.2. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA.

Izaera pertsonaleko datuen tratamendutzat jotzen da datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilita zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea.

Oinarri teknikoen agiriak zehaztuko du, hala badagokio, kontratuak kontratistari datuak lagatzea badakarren, hark trata ditzan, eta zein den lagapenaren xedea, edo izaera pertsonaleko datuak eskuratzea badakarren; kasu horretan, SPKLaren 25. xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituko zaio. Gainera, kontratistak estatuko eta Europar Batasuneko datu-babesari buruzko araudia bete behar du, eta hori funtsezko kontratu-betebeharra da SPKLaren 211. artikuluaren 1. apartatuaren f) letran xedatutakoaren ondorioetarako.

Horrez gain, oinarri teknikoen agirian ezarritakoarekin bat etorriz kontratuak kontratistari datuak lagatzea badakar, hark trata ditzan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duenak, 28. artikuluan ezarritakoaren arabera eta SPKLaren 122.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratistak eta, hala badagokio, adjudikaziodunak edo lizitatzaileek betebehar hauek beteko dituzte, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 28. artikuluan aipatutakoez gain:

a) Lizitatzaileek zerbitzariak zein haiekin lotutako zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusten badute, eskaintzan adierazi beharko dute zerbitzuok aginduko zaizkien azpikontratisten izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoari buruzko baldintzei dagokienez definituta. Era berean, kontratuaren iraunaldian arestian aipatutako informazioan izaten den edozein aldaketaren berri eman beharko du. SPKLaren 122. artikuluaren 2. apartatuaren e) letrako bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, funtsezko betebehartzat jotzen da 211. artikuluaren 1. apartatuaren f) letran xedatutako ondorioetarako.

b) Enpresa adjudikaziodunak, kontratua formalizatu baino lehen, adierazpen bat aurkeztu beharko du; bertan, zerbitzariak non egongo diren eta horiekin lotutako zerbitzuak nondik emango diren agerrarazi beharko du. SPKLaren 122. artikuluaren 2. apartatuaren e) letrako bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, funtsezko betebehartzat jotzen da 211. artikuluaren 1. apartatuaren f) letran xedatutako ondorioetarako.

c) Kontratistak kontratuaren iraunaldian a) letrak hizpide duen adierazpenean emandako informazioan izaten den edozein aldaketaren berri eman beharko du. SPKLaren 122. artikuluaren 2. apartatuaren e) letrako bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, funtsezko betebehartzat jotzen da 211. artikuluaren 1. apartatuaren f) letran xedatutako ondorioetarako.

d) Kontratistak (tratamenduaren arduradun jardungo baitu) konpromisoa hartzen du une oro, kontratu honen ondoriozko zerbitzuak ematean, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudian xedatutakoa betetzeko. Zerbitzu hori eta kontratuaren xedearen ondoriozko beste guztiak eskaintzeko, baliteke ezinbestekoa izatea ITELAZPI SAren (tratamenduaren arduradunaren) sistema informatikoan instalaturiko programetan edo dokumentazio-fitxategietan dauden datu pertsonalak eskuratzea.

e) Kontrataturiko zerbitzuak gauzatzeko, ITELAZPI SAk baimena ematen dio kontratistari sistemak eta fitxategiak urrunetik zein tokian bertan atzitzeko, kontratu honen xede diren zerbitzuak emate aldera.

f) Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du atzitzen duen informazioa mandatu honen xede den helbururako bakarrik eta ITELAZPI SAren jarraibideekin bat etorriz tratatzeko. Inoiz ezingo ditu datuak bere xedeetarako erabili.

g) Kontratu-prestazioa bukatutakoan, adjudikaziodunak izaera pertsonaleko datuak eta, hala badagokio, horiek jasotzen dituzten euskarriak itzuli beharko dizkio ITELAZPI SAri, prestazioa burututakoan. Itzultzean, adjudikaziodunak erabilitako ekipamendu informatikoetan dauden datuak erabat ezabatu behar dira.

h) ITELAZPI SAk kontratistak eskatzen dituen zerbitzuak emateko eskaturiko informaziorako sarbidea eman behar du. Kontratistak konpromisoa hartzen du ITELAZPI SAren informazio-sistema automatizatuak eta ez-automatizatuak soil-soilik hark komunikatzen dionean eta kontratuan ezarritako xedeekin atzitzeko.

i) Kontratistaren langileek mandatu honen arabera eskuratu dituzten izaera pertsonaleko datuei buruzko sekretu-eginbeharra gorde beharko dute, xedea bukatu ostean ere. Horri dagokionez, kontratistak bermatu beharko du datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek berariazko eta idatzizko konpromisoa hartzen dutela konfidentzialtasuna errespetatzeko eta egokiak diren segurtasun-neurriak betetzeko. Halaber, ITELAZPI SAren esku jarriko dute betebehar hori bete dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

   Kontratistak bermatu beharko du ITELAZPI SAren datu pertsonalak tratatzen dituzten bere langileek datu pertsonalen babesari buruzko beharrezko prestakuntza daukatela.

j) Oro har, ez da baimentzen tratamenduaren xedea osatzen duten prestazioak azpikontratatzea. Tratamenduren bat azpikontratatu behar bada, aldez aurretik eta idatziz komunikatu beharko zaio ITELAZPI SAri, hilabete bat lehenago; komunikazio horretan, azpikontratatu nahi diren tratamenduak identifikatu, eta erakunde azpikontratista eta haren harremanetarako datuak argi eta garbi identifikatu beharko dira. Ezarritako epean ITELAZPI SAk horren aurka dagoenik

adierazten ez badu, azpikontratazioa egin ahalko da. Azpikontratistak ere, orobat tratamenduaren arduraduna izango baita, akordio honetan eta ITELAZPI SAk ematen dituen jarraibideetan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu. Kontratistari dagokio azpiarduradunarekiko harreman juridikoa erregulatzea, akordio honetako baldintza, segurtasun-neurri aplikagarri eta jarraibide berberak jasotzen dituen tresna juridiko baten bidez; hala ere, azpikontratistek kontratista nagusiarekiko bakarrik izango dituzte betebeharrak, eta, beraz, hark hartuko du gain kontratua betearazteko erantzukizun guztia ITELAZPIren aurrean.

k) Kontratistak, tratamenduaren arduradun gisa, konpromisoa hartzen du bere informazio-sisteman ITELAZPI SAren titulartasuneko datuak tratatzeko eta biltegiratzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarri eta egokitzeko. Horri dagokionez, neurriek tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, eskuragarritasun eta erresilientzia iraunkorrak bermatu beharko dituzte. Era berean, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar leheneratzea ahalbidetu behar dute, ezbehar fisiko edo teknikoren bat gertatzen bada. Azkenik, neurri horiek tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri teknikoen eta antolamendu-neurrien eraginkortasuna aldizka egiaztatu, ebaluatu eta baloratzea ahalbidetu beharko dute, baita datu pertsonalak pseudonimizatzea eta zifratzea ere, hala badagokio.

   Nolanahi ere, adjudikaziodunak ITELAZPI SAren esku jarri beharko du bere betebeharrak betetzen dituela frogatzeko eta ITELAZPI SAk edo hark baimendutako beste auditore batek egiten dituen auditoretzak zein ikuskapenak egiteko behar den informazio guztia.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoaz gain, beste neurri batzuk ezarri edo alderdien artean adostu ahalko dira, onartutako estandarren arabera, jarraibideen bidez; gainera, neurriok horretarako ziurtagirien eta egiaztapenen bitartez frogatu ahalko dira.

l) Kontratistak ITELAZPI SAri lagunduko dio datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurkaratzeko, haien tratamendua mugatzeko eta erabaki indibidualizatu automatizatuen xede ez izateko (profilak egitea barne) eskubidearen erabilerari erantzuten. Kontratistak ITELAZPI SAren datuen tratamenduei dagozkien eskubideak erabiltzeko eskaeraren bat jasotzen badu, gehienez ere 48 orduko epean komunikatu beharko dio ITELAZPI SAri.

   ITELAZPI SAri dagokio interesdunei informazioa jasotzeko eskubidea ahalbidetzea. Hortaz, kontratistak ez ditu bere informazio-ereduak emango; aitzitik, edozein kasutan, ITELAZPIk emandakoak baliatuko ditu edo eskatu egingo ditu datuak biltzeko edozein bide edo kanaletan sartu behar badira.

m) Kontratistak ITELAZPI SAren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien idatzizko erregistro bat eduki beharko du. Bertan, informazio hau jasoko da:

   - Datu-babesaren arduradunaren eta, hala badagokio, koordinatzailearen izena eta harremanetarako datuak.
   - ITELAZPI SAren kontura egindako tratamenduen kategoriak.
   - Horrelakoak aplikatzea bidezkoa bada, alderdi hauei buruzko segurtasunezko neurri teknikoak eta antolamendu-neurriak:
     - Datu pertsonalen pseudonimizazioa eta zifratzea.
     - Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, eskuragarritasun eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko gaitasuna.

- Datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar leheneratzeko gaitasuna, ezbehar fisiko edo teknikoren bat gertatzen bada.
- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri teknikoen eta antolamendu-neurrien eraginkortasuna aldizka egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko prozesua.

n) Kontratistak bidegabeko atzerapenik gabe eta nolanahi ere gehienez 24 orduko epean jakinaraziko dizkio ITELAZPI SAri, kontratuaren xedea betearazteko edo gainbegiratzeko arduradunari mezu elektronikoa bidaliz, datu pertsonalen segurtasunaren urraketak, horien berri izanez gero, baita gorabehera dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzitsua den informazio guztia ere (zehatz-mehatz, gorabeheraren deskribapena eta ekar ditzakeen ondorioak, ukitutako pertsonen kategoria eta gutxi gorabeherako kopurua eta gorabehera leheneratzeko eta arintzeko hartutako neurriak).
Segurtasunaren urraketak pertsona fisikoen eskubideetarako eta askatasunetarako arriskutsua izatea gertagarria ez denean, ez da jakinarazpenik egin beharko.
Era berean, ITELAZPI SAri laguntza eman beharko dio datuen babesari buruzko inpaktu-ebaluazioak egiteko, bidezkoa denean, eta, hala badagokio, kontrol-agintaritzari aurretiazko kontsultak egiteko, bidezkoa denean.
Bi alderdiek konpromisoa hartzen dute dokumentu honen ondoriozko betebeharrak betetzean aplikagarriak diren lege eta arau guztiak betetzeko, bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duenak, ezarritako eta zehaztutako betebeharrak. Alderdi bakoitzak araudi hori ez betetzearen ondoriozko bere erantzukizunari aurre egin beharko dio.

30.3. DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, ITELAZPIk lizitazio hau eta, hala badagokio, ondorengo kontratazioa direla-eta biltzen dituen datu pertsonalak baldintza hauen arabera tratatuko dira:

30.3.1. Arduradunaren identifikazioa:

- Tratamenduaren arduraduna: ITELAZPI SA.
- Harremanetarako datuak:
  - Helbidea: Bizkaiko Teknologia Parkeko 101. eraikina, 48170 Zamudio.
  - Telefono-zenbakia: 944032300.
  - Helbide elektronikoa: administrazioa@itelazpi.eus.

30.3.2. Xedea:

- Tratamenduaren xedea: ITELAZPI eta, bereziki, kontratazioa, fakturazioa eta diruzaintza ekonomikoki kudeatzea.
- Datuen kontserbazioa: datu-tratamenduaren ondoriozko erantzukizun juridikoak betetzeko behar den denboran.

30.3.3. Legitimazioa:

ITELAZPIren legezko kontratazio-, fakturazio- eta kontabilitate-betebeharrak betetzea.

30.3.4. Hartzaileak:

Datu hauek zerga-administrazio eskudunei komunikatu ahalko zaizkie, zerga-araudiaren arloko legezko betebeharrak betetzeko.

30.3.5. Eskubideak:

Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien tratamendua mugatzeko eta aurkaratzeko eskubidea dauka. Horretarako, harremanetarako datuetan aipatutako helbidera idazki bat bidali beharko du.

Halaber, interesdunak datuak babesteko bulego eskudunean erreklamazioa jartzeko eskubidea dauka.

31. EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK.

31.1. LANEN JABETZA.

Edozein fasetan egindako lanak erakunde kontratatzailearen jabetzakoak dira eta hark, ondorioz, edozein unetan bildu ahalko du prestazioen zati bat, behin betiko programarekin bateragarria bada eta lanen garapen zuzenari eragiten ez badio.

Era berean, kontratistak prestazioa aurretiaz hartzeko eskatu ahalko du, eta erakunde kontratatzailearen esku egongo da hori onartzeko ahalmena.

31.2. JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALA.

Jabetza intelektual edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek eskubide hori erakunde kontratatzaileari lagatzea ekarriko dute.

Ondorioz, erakunde kontratatzaileak, jatorrizko ekoizpen-formatuaz gain, eskuratu den eta ustiapen ekonomikoa ekar dezakeen obra edo produktuaren gaineko jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak eta, bereziki, erreprodukzio, banaketa, komunikazio publikorako eta eraldaketarako eskubideak bereganatzen ditu. Jabetza intelektualeko eskubide horiek modu esklusiboan eskuratzen dira, sinatzen den egunean dagoen edozein ustiapen-modalitatetan edo euskarritan, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bateginean xedatutako gehieneko epean eta munduko herrialde guztiak salbuespenik gabe barne hartzen dituen lurralde-eremurako.

Eskubide horren titulartasunak amaierako lana edo produktua ez ezik lanak, bozetoak, eskemak, aurretiazko dokumentuak, fluxu-diagramak eta, osorik hartuta, garapenerako egin diren eta jabetza intelektual eta industrialak sor ditzaketen lan guzti-guztiak ere hartzen ditu barne.

Kontratistak erakunde kontratatzaileari informazio zehatza eman behar dio kontratatutako lanaren emaitzan sartuko diren aurretiazko ekarpenen gainean hirugarrenek eduki ditzaketen legezko erreserba eta eskubide guztiei buruz. Kontratistaren betebeharra da aipaturiko eskubide eta erreserben menpe dauden elementu guztien erabateko eskuragarritasuna bermatzea, eta horrek ekar ditzakeen kostuak gain hartuko ditu.

Kontratista eskubide horiei buruzko erreklamazio guztien erabateko erantzulea izango da, eta haren konturakoak izango dira. Hortaz, erakunde kontratatzaileari ordaina eman beharko dio erreklamazioak jartzearen ondorioz gerta daitekeen edozein kalte-galerarengatik, sor litezkeen ordezkaritza- eta defentsa-gastuak barne.

Kontratuaren xedea aplikazio informatikoak egitea eta garatzea denean, aurreko paragrafoan aipaturiko hirugarrenen legezko erreserbei eta eskubideei buruz aipatutako informazioan honako hauek hartu beharko dira barne nahitaez: erabilitako iturri guztiak, haien bertsioa eta jatorria, osagai bakoitzari aplikaturiko lizentziak eta erabilera konpilazioan edo exekuzioan egiten den.

Ez kontratistak ez egitean esku hartu duten pertsonetako inork ezingo du lana berarentzat erabili, ezta kontratatutako lanaren zatirik, filmaketarik, testurik, marrazkirik, argazkirik edo parekaturik hirugarrenei eman ere. Halaber, ezingo dute ez eduki guztia ez zati bat argitaratu erakunde kontratatzailearen berariazko eta idatzizko baimena eduki ezean. Era berean, ez dira saiatuko kontratu honen ondoriozko jabetza industrial eta intelektualeko eskubideen berdina edo antzekoa den eskubiderik erregistratzen; betebehar horrek kontratua amaitzean ere iraungo du. Nolanahi ere, kontratista izango da betebehar horiek ez betetzearen ondoriozko kalte-galeren erantzulea.

Kontratistak konpromisoa hartzen du erakunde kontratatzailearekin elkarlanean aritzeko eta hark eskatzen dion dokumentazio guztia sinatzeko erakunde kontratatzaileak klausula honetan aipaturiko eskubide guztiak eskura ditzan edo horiek haren alde babesturik gera daitezen.

32. ZIGORRAK.

32.1. ZIGORRAK.

Alde batera utzi gabe kontratistari legez dagokiola akatsak konpontzeko eta kalte-galeren ordaina emateko betebeharra, eta SPKLan eta administrazio-klausuletako 38. klausulan kontratua suntsiarazteko aukera jasotzen dela, kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahalko dizkio kontratistari arrazoi hauengatik:

32.1.1. Ez-betetze partziala edo betetze akastuna.

Zigorrak ezarri ahalko dira prestazioa akatsekin betetzen bada edo konpromisoak betetzen ez badira, besteak beste, SPKLaren 130. artikuluan langileen subrogazioari buruz ezarritako betebeharrak betetzen ez badira eta ingurumen-, gizarte- eta lan-arloan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira (bereziki, soldaten ordainketa betetzen ez bada, behin eta berriz atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboen ondoriozkoak baino soldata baxuagoak aplikatzen badira eta hori larria eta dolozkoa bada).

Zigorrek ez-betetzearen larritasunarekin proportzionalak izan beharko dute.

Bakoitzaren munta ezingo da izan kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa (BEZik gabe), eta munten guztizkoa ezingo da izan kontratuaren prezioaren % 50 baino handiagoa.

Kontratistak hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratuan zehazturiko prestazioen betearazpenaren zati bat betetzen ez duenean, jabetzak kontratua suntsiaraztea zein zigorrak ezartzea erabaki ahalko du, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta.

32.1.2. Betearazten berandutzea.

Kontratista berandutzen bada, jabetzak ez dio aldez aurretik ohartarazi beharko.

Kontratista hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik guztizko epea betetzeari dagokionez berandutzen denean, jabetzak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsiarazi ahalko du edo, bestela, eguneroko zigorrak ezarri ahalko ditu, hain zuzen ere, 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZik gabe).

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera iristen direnean (BEZik gabe), jabetzak kontratua suntsiaraztea edo zigor gehiago ezarrita betearazten jarraitzea erabakitzeko ahalmena edukiko du.

Jabetzak aurreko apartatuetan aipaturiko ahalmen berberak edukiko ditu kontratistak epe partzialak betetzen ez baditu.

32.1.3. Kontratuko funtsezko betebeharren ez-betetzea.

Kontratuaren karatulan (26. puntuan) edo kontratazioa arautzen duten agirietan xedatutako betearazpen-baldintza bereziak betetzen ez badira, kontratuaren gehieneko aurrekontuaren edo prezioaren % 1 eta % 10 (BEZik gabe) bitarteko zigorrak ezarriko dira, ez-betetzearen larritasunaren arabera eta errepikatu den kontuan harturik.

32.1.4. Azpikontratazioari buruzko arau-hausteak.

SPKLaren 215.3 artikuluarekin bat etorriz, azpikontratazioa egiteko ezarritako baldintzak urratzeak, azpikontratistaren gaitasuna, larrialdi-egoera dakarten inguruabarrak edo azpikontratazioa premiaz egin beharra dakarten inguruabarrak egiaztatzen ez badira, hauek izango dira ondorioak:

a) Kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren % 50erainoko zigorra ezarriko zaio.
b) Kontratua suntsiaraziko da, baldin eta 211. artikuluaren 1. apartatuaren f) letrako bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira.

32.2. ZIGORREN EZARPENA.

Xedatutako zigorrak jabetzak erabakita ezarriko dira eta, horretarako, kontratistari guztizko ordainketa gisa zein ordainketa partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetatik kenduko dira edo, bestela, bermetik hartuko dira, halakorik eratu bada.

Ez-betetze partziala, betetze akastuna edo betearazteko atzerapena egon bada eta zigorrak ez baditu estaltzen jabetzari egindako kalteak, jabetzak kalte-galeren ordaina eskatuko dio kontratistari.

33. PREZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA.

33.1. PREZIOA.

Kontratistak zerbitzuak emateagatik kobratu behar duen gehieneko prezioa eskaintzan ezarritakoa izango da («Prezioa»).

33.2. BARNE HARTUTAKO KONTZEPTUAK.

Prezioan sor daitezkeen kostu eta gastu guztiak eta kontratistak kontratuaren arabera hartutako betebeharrak betetzeko beharrezkoak direnak barne hartuko dira, baita ziurtagiri ofizialak eskuratzeko gastu guztiak, zergak, gastuak, tasak eta edozein zerga-motatako arielak ere, BEZa barne.

33.3. PREZIOEN BERRIKUSPENA.

Prezioen berrikuspena dela-eta, karatularen **9. puntuan** ezarritakoari jarraituko zaio; bertan, prezioak berrikustea bidezkoa den ala ez zehaztuko da eta, bidezkoa bada, formula aplikagarria jasoko da.

33.4. SORTZAPENA, ORDAINTZEKO MODUA ETA EPEA.

Kontratistak benetan egiten dituen lanen ordainketa jasotzeko eskubidea dauka, adostutako prezioen arabera, emandako kontratuari eta haren aldaketa onetsiei jarraikiz.

Ezingo da ordainketarik egin dagokion kontratua formalizatuta egon arte.

Ordainketak banku-transferentziaz egingo dira, adostasun-faktura aurkeztuta, legez ezarritako epean.

33.5. KONPENTSAZIOA.

Jabetzak kontratistak kontratuaren arabera edo beste edozein arrazoirengatik zor dizkion kopuruak kendu eta atxiki ahalko ditu edozein ordainketatatik.

34. KONTRATUAREN ALDAKETA.

Kontratua aldatzeko araubidea SPKLaren 203., 204. eta 205. artikuluetan xedatutakoa izango da.

Hala ere, SPKLaren 242. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek ez dira aldaketatzat joko:

a) Neurketak gehiegizkoak izatea, halakotzat ulerturik obra behar bezala egiten den bitartean egiazki gauzatutako unitateen kopuruaren eta proiektuaren neurketetan aurreikusitako kopuruaren artean izaten den aldea soilik, betiere orokorrean ez dutenean egiten hasierako kontratuko prezioaren % 10etik gorako gastu-igoera. Neurriak gehiegizkoak izate hori obra-amaierako ziurtagirian jaso beharko da.
b) Prezio berriak sartzea, SPKLan eta hura garatzeko arauetan ezarritako prozeduren bidez kontraesanez finkatutakoak, baldin eta prezio berri horiek kontratuaren prezio orokorraren igoerarik ez badakarte eta obra-unitateetan hasierako aurrekontua guztira % 3 gainditu gabe eraginik ez badute.

35. AZPIKONTRATAZIOA.

35.1. BETEKIZUN OROKORRAK.

Karatulan edo espediente-agirietan hala xedatzen bada, kontratistak prestazioaren zati bat egitea adostu ahalko du hirugarrenekin, klausula honetan ezarritakoari jarraituz.

Azpikontratuak egiteko, betekizun hauek bete beharko dira:

a) Karatulan hala xedatzen bada, lizitatzaileek eskaintzan adierazi beharko dute kontratuaren zein zati azpikontratatzea aurreikusten duten, haren zenbatekoa eta zerbitzuok aginduko zaizkien azpikontratisten izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoari buruzko baldintzei dagokienez definituta.

b) Nolanahi ere, kontratistak idatziz komunikatu beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ostean eta, beranduenez, kontratua betearazten hasten denean, azpikontratuak sinatzeko asmoa duela. Horretarako, prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duen azalduko du, azpikontratistaren harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak aipatuko ditu eta azpikontratistaprestazioaren zatia betearazteko gai dela behar bezala egiaztatu beharko du, dauzkan elementu teknikoak, giza baliabideak eta esperientzia aipatuz. Halaber, 71. artikuluaren arabera kontratatzeko debekurik ez daukala egiaztatuko du.
   Kontratista nagusiak kontratazio-organoari idatziz jakinarazi beharko dio kontratu nagusia betearazi bitartean informazio horrek izaten duen edozein aldaketa, baita azpikontratista berriei buruz behar den informazio oro ere.

c) Azpikontratistak azpikontratazioaren xede den kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia badauka, inguruabar hori komunikatzea nahikoa izango da haren gaitasuna egiaztatzeko.
   Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua sinatu eta berehala egiztatu ahalko da baldin eta azpikontratazioa larrialdi-egoera bati edo premiazko neurriak hartzea eskatzen duen egoera bati aurre egiteko beharrezkoa bada eta hori behar bezala egiaztatzen bada.
   Karatulak lizitatzaileei ezartzen badie apartatu honen (a) letran aipaturiko inguruabarrak komunikatu behar dituztela, eskaintzan jasotakoarekin bat ez datozen azpikontratuak (bertan izendatuez bestelako enpresaburuekin sinatu direlako edo bertan aipatu ez diren prestazioaren beste zati batzuei egokitzen zaizkielako) ezingo dira sinatu harik eta jakinarazpena egin denetik hogei egun igarotzen diren arte eta apartatu honen (b) letrak hizpide dituen egiaztapenak aurkeztu diren arte, aldez aurretik berariaz baimendu badira izan ezik, baldin eta jabetzak ez badu epe horretan jakinarazi haien aurka dagoenik. Araubide hori halaber aplikatuko da azpikontratistak lanbide-profila deskribatuz identifikatu badira eskaintzan.
   Kontratistaren erantzukizunpean, azpikontratuak hogei eguneko epea igaro baino lehen amaitu ahalko dira baldin eta azpikontratazioa larrialdi-egoera bati edo premiazko neurriak hartzea eskatzen duen egoera bati aurre egiteko beharrezkoa bada eta hori behar bezala egiaztatzen bada.

d) Kontratu sekretu edo isilpekoetan, lege- nahiz erregelamendu-xedapenen arabera segurtasun-neurri bereziekin betearazi behar diren kontratuetan edo Estatuaren funtsezko segurtasun-interesen babesak hala eskatzen duenean, azpikontrataziorako kontratazio-organoaren berariazko baimena beharko da beti.

SPKLaren 75. artikuluaren 4. apartatuan ezarritakoaren arabera, obra-kontratuetan, zerbitzu-kontratuetan edo hornidura-kontratu baten testuinguruko kokatze- edo instalazio-zerbitzu edo -lanetan, kontratazio-organoek agirietan ezarri ahalko dute funtsezko zeregin jakin batzuk ezingo direla azpikontratatu eta kontratista nagusiak zuzenean egin beharko dituela. Funtsezko zeregin horien zehaztapena kontratazio-espedientean egiaztatu beharko da.

Azpikontratistek kontratista nagusiarekiko bakarrik izango dituzte betebeharrak, eta, beraz, hark hartuko du gain kontratua betearazteko erantzukizun guztia jabetzaren aurrean, kontratu-dokumentazioari zorrozki jarraituz, SPKLaren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharren betetzea barne.

Klausula honen (b) eta (c) letretan aipaturiko komunikazioen arabera sinatutako azpikontratuei buruz jabetzak duen ezagutzak eta (d) letran xedatutako kasuan ematen duen baimenak ez dute kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa aldatuko.

Kontratistak ezingo du inoiz kontratuaren betearazpen partziala adostu antolamendu juridikoaren arabera kontratatzeko desgaituta dauden pertsonekin edo SPKLaren 71. artikuluko kasuetako batean daudenekin.

Kontratistak langileen ordezkariei azpikontratazioaren berri eman beharko die, lan-arloko legeriarekin bat etorriz.

SPKLaren berrogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoa eragotzi gabe, azpikontratistek ez dute jabetzaren aurkako zuzeneko akziorik edukiko kontratistak kontratu nagusiaren eta azpikontratuen betearazpenen ondorioz haiekin hartutako betebeharrengatik.

35.2. AZPIKONTRATISTENTZAKO ETA HORNITZAILEENTZAKO ORDAINKETAK.

Kontratistak itundutako prezioa ordaindu beharko die azpikontratistei edo hornitzaileei, jarraian aipatzen diren epeetan eta baldintzetan.

Finkaturiko epeak ezingo dira izan Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatutakoak baino txarragoak, eta kontratista nagusiak ondasunak edo zerbitzuak onartzen edo egiaztatzen dituen egunetik aurrera zenbatuko dira, baldin eta azpikontratistak edo hornitzaileak legez ezarritako epeetan eman badu faktura.

Ondasunak edo zerbitzua eman eta gehienez hogeita hamar eguneko epean eman beharko da onarpena. Epe horretan bertan adierazi beharko dira, hala badagokio, emandakoarekin ados ez egoteko arrazoiak. Aipatutako epean egiten ez bada, ondasunak onartu direla edo zerbitzu-prestazioarekin bat etorriz egiaztatu direla ondorioztatuko da.

35.3. AZPIKONTRATISTENTZAKO ETA HORNITZAILEENTZAKO ORDAINKETEN EGIAZTAPENA.

Kontratistak jabetzari bidaliko dio, hark eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda zehatza, haien partaidetza burutzen denean, baita ordainketa-epearekin zuzeneko harremana duen bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak

ere. Era berean, jabetzak eskatuta, SPKLaren 216. artikuluan eta Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean legez ezarritako ordainketa-epeen barruan ordainketak bete direlako egiaztagiria aurkeztu beharko du, prestazioa bukatutakoan. Betebehar horiek betearazpen-baldintza berezitzat jotzen dira, eta, betetzen ez badira, antolamendu juridikoan xedatutako ondorioak sortzeaz gain, agirietan horretarako jasotzen diren zigorrak ezartzeko aukera egongo da; orduan, behin betiko bermea erabiliko da arrazoi horrengatik ezartzen diren zigorrak ordaintzeko.

36. LAGAPENA.

Kontratutik datozen eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahalko dizkio kontratistak, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarria izan eta lagapenak ez badakar merkatuan lehiatzeko aukera egiazki mugatzea. SPKLaren 214. artikuluaren 2. apartatuaren b) letran ezarritakoa eragotzi gabe, ezingo da baimendu lagapena hirugarren bati egitea baldin eta horrek kontratistaren ezaugarrietan funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak badira.

Kontratistak betekizun hauek betetzen baditu laga ahalko dizkie bere eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena.
b) Lagatzaileak kontratuaren % 20 gutxienez egikarituta izan behar du. Betekizun hori ez da aplikatzekoa izango baldin eta lagapena gertatzen bada kontratista konkurtsoan dagoela, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan, edo konkurtsoa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi bazaio negoziazioak hasi direla birfinantzaketarako akordio bat lortzeko edo hitzarmen-proposamen aurreratu baterako atxikipenak lortzeko konkurtsoei buruzko legerian ezarritako baldintzetan.
c) Lagapen-hartzaileak kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du eta, orobat, kontratua egikaritzeko fasearen arabera eskatzekoa zaion kaudimena izan behar du; gainera, behar bezala sailkatuta egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio, eta ez dio eragin behar kontratatzeko ezein debekuk.
d) Adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da.

Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztien subrogazioa jasoko du lagapen-hartzaileak.

V.- KONTRATUA AZKENTZEA

37. BETETZEA: EMATEA, HARRERA ETA LIKIDAZIOA.

37.1. EMATEA ETA BETETZE ZUZENAREN EGIAZTAPENA.

Kontratuaren xedea osatzen duten prestazioak oinarri teknikoen agirian ezarritako zehaztapenei jarraituz emango dira.

OTAn besterik xedatu ezean, honako hau izango da emate-data:

- Traktu bakarreko kontratuetan: kontratistak kontratuaren arduradunari prestazio guztiak oinarri teknikoen agirian zehaztutako moduan eta formatuan ematen dizkion data.
- Segidako traktuko kontratuetan: kontratuaren iraunaldiaren guztizko epea amaitzen den eguna.

Gehienez hamabost (15) egun balioduneko epean, emate-datatik aurrera zenbatuta, kontratuaren arduradunak egokiak diren egiaztapenak egingo ditu itundutako baldintzak zuzen bete diren egiaztatzeko eta egiaztapen-txosten bat egingo du. Bertan, aukera hauetako bat gauzatuko du:

a) Bete direla ondorioztatzen badu: kontratua hartzea eta horretarako data proposatuko du (kontratuaren karatularen **6. puntuan** adierazitako epean).
b) Bete ez direla ondorioztatzen badu: ikusitako ez-betetzeak edo akatsak identifikatuko ditu eta zuzentzeko jarraibideak zehaztuko ditu. Txostena kontratistari bidaliko dio, zuzenketa egiteko epea zehaztuko du eta jakinaraziko dio bost (5) egun balioduneko epea daukala txostenean jasotako ondorioen aurkako idatzizko erreklamazio bat jartzeko, nahi izanez gero.

Adierazitako epean kontratistak erreklamaziorik egiten ez badu, jarraibideekin ados eta ikusitako akatsak zuzentzera behartuta dagoela ondorioztatuko da.

Adierazitako epean kontratistak erreklamazioa aurkezten badu, egiaztapen-txostena eta erreklamazioa kontratazio-organoari bidaliko zaizkio, eta hark hamabost (15) egun balioduneko epean ebatziko du.

37.2. AKATSEN ZUZENKETA.

Konpontzeko epea igarotakoan, kontratuaren arduradunak egokiak diren egiaztapenak egingo ditu emandako jarraibideak zuzen bete diren egiaztatzeko eta, gehienez hamar (10) egun balioduneko epean, bigarren egiaztapen-txostena egingo du:

a) Zuzen bete direla ondorioztatzen badu: administrazio-klausuletako 37.1 klausularen a) apartatuan aipatutako jarduketak egingo ditu.
b) Bete ez direla ondorioztatzen badu: ikusitako ez-betetzeak edo akatsak identifikatuko ditu eta egiaztapen-txostena kontratistari eta kontratazio-organoari bidaliko die, jarduketa hauetako baten proposamenarekin batera, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta:

   - Kontratua suntsiarazteko prozedura hastea. Orduan, bermea konfiskatuko da eta kontratistak sortutako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio erakunde kontratatzaileari, hain zuzen, konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duen kopurua.

- Zuzentzeko beste epe bat ematea. Kasu horretan, kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailearen edo prezioaren % 25erainoko zigorra ezarriko da.

Horretarako emandako epean azpikontratistak zuzentzen ez badu, kontratua suntsiaraziko da, bermea konfiskatuko da eta kontratistak sortutako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio erakunde kontratatzaileari, hain zuzen, konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duen kopurua.

37.3. HARRERA.

Nolanahi ere, harrera gertatu arte, kontratista itundutako baldintzak zuzen betetzearen erantzulea izango da eta, kontratuaren arduraduna zerbitzu partzialen ziurtapenekin ados agertu bada edo aldeko egiaztapen-txostena eman badu ere, horrek ez du ez salbuespenik eragingo ez inolako eskubiderik emango.

Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu itundutako baldintzak zuzen bete direla, kontratua hartu egingo da.

Harrera-egintzara kontratuaren arduraduna eta kontratista ordezkatzen duen pertsona joango dira. Kontratuaren arduradunak egin beharko du egintzarako deialdia. Harrera-egintzaren akta egingo da eta bertaratutako guztiek bina ale sinatu beharko dituzte.

37.4. LIKIDAZIOA.

Kontratuaren izaerak hala eskatzen badu edo kontratuaren karatulan berariaz jaso bada SPKLaren 309.1 artikuluko bigarren paragrafoko xedapena, hogeita hamar (30) eguneko epean, harrera- edo adostasun-aktaren datatik aurrera zenbatuta, kontratazio-organoak dagokion likidazioa erabakitzea ebatziko du, kontratistari jakinarazi eta, hala badagokio, ordainduko zaio, baldin eta faktura ez bada harrera-dataren ostean aurkeztu.

Kontratistak harrera-dataren ostean aurkeztu bazuen faktura, faktura erakunde kontratatzailearen erregistroan aurkeztu zen datatik aurrera hasiko da zenbatzen hogeita hamar (30) eguneko epea.

Likidazio-saldoaren ordainketa berandutzen bada, kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuengatiko kalte-galera jasotzeko eskubidea edukiko du, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatutako baldintzetan.

38. BERME-EPEA ETA BERMEAREN ITZULKETA.

38.1. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK.

Karatularen 30.4 puntuan xedatutako berme-epean, halakorik zehaztu bada (kontratuaren harrera-dataren biharamunean hasiko da zenbatzen), kontratistak bere kontura zuzendu beharko ditu egindako lanek dituzten eta aipaturiko epean idatziz egiaztatzen eta komunikatzen diren akatsak edo gabeziak.

38.2. BERMEAREN ITZULKETA.

38.2.1. Berme-eperik ezartzen ez bada, kontratua likidatzeko erabakiak barne hartuko du bermea itzultzeko edo kitatzeko agindua.

38.2.2. 38.2.2.- Berme-epea ezartzen bada, epea igarotakoan jarduketa hauek egingo dira:

a) Berme-epean ez bada beharrezko moduan eta epean erreklamaziorik egin edo, eginez gero, erreklamazioak zuzendu badira: kontratazio-organoak bermea itzuli edo kitatuko du.
b) Berme-epean beharrezko moduan eta epean erreklamazioak egin badira eta kontratistak ez baditu zuzendu: kontratuaren arduradunak egokiak diren jarraibideak emango dizkio kontratistari akatsak behar bezala konpontzeko. Horretarako, epe bat emango dio; epe horrek iraun bitartean kontratistak egindako lanen eta emandako prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea izaten jarraituko du, SPKLaren 311. artikuluaren 2. apartatuan azaldutako baldintzetan, eta ez du eskubiderik izango berme-epea luzatzeagatik kopururen bat jasotzeko.

Kontratistak ez baditu kontratuaren arduradun izendatutako pertsonak emandako jarraibideak betetzen horretarako ezarritako epean, bermea konfiskatu egingo da.

39. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.

39.1. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.

Oinarri teknikoen agirian jasotakoez edo, hala badagokio, kontratuaren karatularen **32. puntuan** jasotakoez gain, honako hauek dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak:

a) Sozietate kontratistaren nortasun juridikoa azkentzea.
b) Jabetzaren eta kontratistaren arteko akordioa.
c) Kontratu honen arabera onartutako edozein betebehar partzialki, berandu edo akatsekin betetzea.
d) Erakunde kontratatzailearen zuzendaritza- eta ikuskapen-ahalmenak eragoztea.
e) Kontratistak konfidentzialtasunaren arloan dituen betebeharrak ez betetzea.
f) Kontratistak eskaintzan emandako informazioan faltsutasuna aurkitzea.
g) Kontratistak onartutako edozein betebehar azpikontratatzea edo kontratua lagatzea jabetzaren nahitaezko baimenik gabe.
h) Kontratista epeak betetzen atzeratzea.
i) Jabetzak ordainketa 2 hilabete baino gehiago atzeratzea.
j) Jabetzak atzera egitea edo kontratua 3 hilabete baino gehiagoan etetea.
k) Enpresa kontratistak kontratuaren betearazpen-aldi guztian aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan finkaturiko arauak eta baldintzak betetzeko betebeharra ez betetzea.
l) Nolanahi ere, suntsiarazteko arrazoia izango da prestazioa hasieran itundutako baldintzetan egikaritzeko ezintasuna, kontratua SPKLaren 204. eta 205. artikuluen arabera aldatu ezin denean, baita SPKLaren 211. artikuluaren i) letran jasotakoa ere.

m) Kontratuan xedatutako beste edozein arrazoi.

Ez-betetze bat gertatzen bada, klausula honetan definitzen den moduan hori gertatu bezain laster, bere zatia bete duen alderdiak ez-betetze hori jakinaraziko dio bete ez duen alderdiari. Kontratua erabat suntsiaraziko da bete ez duen alderdia ez bada 7 eguneko epean ez-betetze hori zuzentzen hasi, jakinarazpen-datatik aurrera zenbatuta, edo zuzenketa ez bada hamabost (15) eguneko epean burutu, jakinarazpen-datatik aurrera zenbatuta.

39.2. EZ-BETETZEAGATIK SUNTSIARAZTEAREN ONDORIOAK.

Suntsiarazteko arrazoietako edozeinek, hala badagokio, eskubidea emango dio beste alderdiari dagozkion kalte-galeren ordaina jasotzeko.

Ez-betetzea kontratistari egotzi ahal bazaio, hark, gainera, betebehar hauek edukiko ditu:

a) Jabetzak kontratista berriari ordezpenaren ondorioz ordaindu behar dion edozein zenbateko ordaindu beharko dio jabetzari.
b) Suntsiarazte-datan amaitzeko zeuden zerbitzuen truke jabetzak egin duen edozein ordainketa itzuli beharko dio jabetzari.
c) Gainera, kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzeak berekin ekarriko du kontratua zuzen betearazteko jarritako bermea galtzea.

VI.- EGINTZEN BERRIKUSPENA

40. EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA.

40.1. KARATULAREN 7.2 PUNTUAN ADIERAZITAKO BALIO ZENBATETSIAK SPKL-AREN 44.1 ARTIKULUKO ATALASEAK GAINDITZEN BADITU, HONAKO HAU APLIKATUKO DA:

Aukeran, kontratazio-arloko errekurtso berezia, SPKLaren 44.1 artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa, jarri ahalko da. Hamabost egun balioduneko epean aurkeztu beharko da, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, SPKLaren 50. artikuluarekin bat etorriz.

Bestela, aipaturiko aukerako errekurtsoa jartzen ez bada, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatuta, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.

40.2. KARATULAREN 7.2 PUNTUAN ADIERAZITAKO BALIO ZENBATETSIAK EZ BADITU GAINDITZEN SPKL-AREN 44.1 ARTIKULUKO ATALASEAK, HONAKO HAU APLIKATUKO DA:

Egintzak administrazio-bidean aurkaratu ahalko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, Gobernantza eta Autogobernu Sailaren titularraren aurrean, SPKLaren 44.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

VII.- ERANSKINAK

0. ERANSKINA.- AKP-REN ERANSKINEN LABURPEN-TAULA

AOP-REN ERANSKINEN LABURPEN-TAULA		
ZK.	**EDUKIA**	**GUTUN-AZALA**
LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO ERANSKINAK (LIZITAZIO-FASEAN):		
1. ERANSKINA	Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua (DEUC).	1
2. ERANSKINA	Baliabideak atxikitzeko konpromisoa	1
3. ERANSKINA	Eskaintzan jasotako informazioa konfidentziala delako adierazpena	1
4. ERANSKINAA	ABEE-A formalki eraikitzeko konpromisoa.	1
5. ERANSKIN	Kontratuaren objektu den jarduera egiten duten pertsonei dagokienez hartzen dituen konpromisoei buruzko adierazpena.	1
6. ERANSKINA	Enpresa-talde berekoak diren enpresak	1
7. ERANSKINA	Eskaintzaren edo eskaintza integratzailearen xede den sorta edo sortak: sorta-konbinazioa.	1
8. ERANSKINA	Jakinarazpenetarako eta komunikazioetarako datuak.	1
9. ERANSKINA	Lehiaren defentsari buruzko erantzukizunpeko adierazpena	1
10. ERANSKINA	Eskaintza ekonomikoa	3
ESKAINTZA ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK EMAN BEHARREKO ERANSKINAK (ADJUDIKATU AURREKO DOKUMENTAZIOA):		
11. ERANSKINA	Beste erakunde batzuen kaudimenaren eta baliabideen eskuragarritasuna kontratuaren indarraldi osoan.	
12. ERANSKINA	Sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik eza.	
KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKO ERANSKINAK (EGIKARITZE-FASEAN):		
13. ERANSKINA	Azpikontratazioari Buruzko Komunikazioa	
14. ERANSKINA	Lan-kontratuen baldintzen inguruko datuei buruzko adierazpena.	

1. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

[xml dokumentu bereizi batean eransten da, EKAB]

]

2. ERANSKINA: BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

1..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (eragile ekonomikoa), ... IFZ daukana, ordezkatuz,..... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZTEN DU:

Espte.: .....-ko ..... Sortaren Kontratuaren betearazpenari atxiki beharreko baliabideei dagokienez:

1.- Kontratuaren betearazpenari **«Baliabideak atxikitzeko konpromisoa» taulan** jasotzen diren baliabideak atxikitzeko konpromisoa hartzen du.

2.- «Baliabideak atxikitzeko konpromisoa» tauletan zehaztutako baliabideak dauzkala egiaztatzeko, karatularen 21.2 klausulan aipatzen den dokumentazioa SPKLaren 150.2 artikuluan ezarritako epean aurkezteko konpromisoa hartzen du.

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura:

[1] Bi eragile ekonomikok edo gehiagok eskaintza aurkezten badute adjudikaziodun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoarekin, adierazpen hau bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute.

«BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA» TAULA.

ESPTEA.: 011.ST.2025: GIZA BALIABIDEAK					
Izen-abizenak	Profila	KEO (Bai/ez)	Antzinatasuna (Urteak)	Esperientzia: kontu-ikuskaritza (Urteak)	Esperientzia: kontu-ikuskaritza- Sektore Publikoa (Lan kopurua)

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

[2]Sinadura:

[2] Bi eragile ekonomikok edo gehiagok eskaintza aurkezten badute adjudikaziodun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoarekin, adierazpen hau bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute.

3. ERANSKINA: ESKAINTZAN JASOTAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIALA DELAKO ADIERAZPENA

[3]..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*eragile ekonomikoa*), ... IFZ daukana, ordezkatuz,..... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZTEN DU:

I. ..... gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, bere ordezkatuaren izenean, eskaintzaren dokumentu, informazio eta alderdi hauek konfidentzialtzat jotzen dituztela, sekretu tekniko edo komertzialei lotuta daudelako:4

Gutun-azala Zk.	Artxiboaren izena	Epigrafea Zk.	Epigrafea Izenburua	Elementu konfidentziala	Orriak

II. Arrazoi hauek justifikatzen dute konfidentzialtasun hori:

Elementu konfidentziala	Orriak.	Konfidentzialtasunaren justifikazioa

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura:

[3] Bi eragile ekonomikok edo gehiagok eskaintza aurkezten badute adjudikaziodun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoarekin, adierazpen hau bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute.
[4] Idatzi elementu konfidentzialak.

4. ERANSKINA: ABEE-A FORMALKI ERATZEKO KONPROMISOA

..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*eragile ekonomikoa*) ordezkatuz,

..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*eragile ekonomikoa*) ordezkatuz,

ADIERAZTEN DUTE:

..... zenbakiko espedienteari dagokionez:

1.- Aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzen dute, hurrenez hurren % .....(e)ko eta % .....(e)ko partaidetzarekin.

2.-.....jauna/andrea izendatzen dutela elkartearen ordezkari edo ahalordedun bakarra eta kontratua azkendu arte haren ondoriozko eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko behar adina ahalorde ematen dizkietela.

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura:

5. ERANSKINA: KONTRATUAREN XEDE DEN JARDUERA EGITEN DUTEN PERTSONEI DAGOKIENEZ HARTZEN DITUEN KONPROMISOEI BURUZKO ADIERAZPENA

[5]..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*eragile ekonomikoa*), ... IFZ daukana, ordezkatuz,..... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZTEN DU:

1.- Adjudikaziodun gertatuz gero, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei hitzarmen kolektibo hau aplikatuko zaie*: .....[6]

2.- Adjudikaziodun gertatuz gero, kontratua betearazi bitartean, kontratuaren arduradunak edo kontratazio-organoak eskatzen duen informazio guztia emango du langile horiei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz.

3.- Adjudikaziodun gertatuz gero, kontratuaren betearazpen guztian, aplikagarria den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordainduko du, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera. Soldata ezin da inoiz izan dagokiona baino baxuagoa.

4.- Borondatez onartzen du adjudikazio-prozeduraren eta bukatu arte kontratuaren betearazpenaren ondoriozko datu guztiei gardentasun instituzionala ematea.

5.- Konpromisoa hartzen du kontratua betearaztean betearazpenari atxikitako langileei dagokienez kontratistari dagozkion betebeharrak, zeinak administrazio-klausuletako 26. klausulan ezartzen diren, zorrozki betetzeko.

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura:

*Subrogatzeko betebeharra dagoen kasuetan aplikatu beharreko lan-arloko araudian xedatutakoa eragotzi gabe.

[5] Bi eragile ekonomikok edo gehiagok eskaintza aurkezten badute adjudikaziodun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoarekin eta adjudikaziodun gertatzen badira, adierazpen hau, kasuan kasu, eragile ekonomiko bakoitzak behar bezala sinatuta aurkeztu beharko da edo bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute.

[6] Idatzi hitzarmen kolektiboaren izena.

6. ERANSKINA: ENPRESA-TALDE BEREKOAK DIREN ENPRESAK[7]-[8]

..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*eragile ekonomikoa*), ... IFZ daukana, ordezkatuz,..... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZTEN DU:

Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluarekin bat etorriz, ordezkatzen dudan enpresa enpresa-talde batekoa da (*bai/ez*): ..... Eta **hau(ek) d(ir)a lizitazio honetan lehiatzen d(ir)en enpresa(k)**:

Izen soziala	IFZ

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura:

[7]Bete enpresa-talde bereko eragile ekonomikoek lizitazio honetarako eskaintza aurkeztuko badute bakarrik.

[8] Bi eragile ekonomikok edo gehiagok eskaintza aurkezten badute adjudikaziodun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoarekin, aurreko oin-oharreko kasuan dauden eragile ekonomikoen ordezkariak sinatuta aurkeztu beharko da adierazpen hau (enpresa-talde bereko eragile ekonomikoek lizitazio honetarako eskaintza aurkeztuko badute).

7. ERANSKINA: ESKAINTZAREN EDO ESKAINTZA INTEGRATZAILEAREN XEDE DEN SORTA EDO SORTAK: SORTA-KONBINAZIOA

[9]..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*eragile ekonomikoa*), ... IFZ daukana, ordezkatuz, ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZTEN DU:

1.- Sorta hauetarako eskaintza aurkezten du[10]: .....

2.- Sorta-konbinazio honetarako eskaintza integratzailea eskaintzen du[11]: .....

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura:

[9] Bi eragile ekonomikok edo gehiagok eskaintza aurkezten badute adjudikaziodun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoarekin, adierazpen hau bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute.
[10] Idatzi zein sortatarako aurkezten den eskaintza.
[11] Idatzi zein sorta-konbinaziotarako aurkezten den eskaintza, kontratuaren karatularen 5.2 puntuan xedatutakoaren arabera.

8. ERANSKINA: JAKINARAZPENETARAKO ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*eragile ekonomikoa*), ... IFZ daukana, ordezkatuz,..... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZTEN DU:

Hauek dira jakinarazpenak eta komunikazioak bide elektronikoz egiteko datuak:

Hartzailea izango den pertsona: .....

Atzitzeko erabiliko den ziurtagiri-mota[12]:

☐ Enpresa-ziurtagiria.

☐ Ahalordedun-ziurtagiria.

Abisua bidaltzeko helbide elektronikoa: .....

Jakinarazpena edo komunikazioa jaso nahi duen hizkuntza[13]:

☐ Euskara.

☐ Gaztelania.

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

[14]Sinadura:

[12] Markatu dagokiona.
[13] Markatu dagokiona.
[14] Bi eragile ekonomikok edo gehiagok eskaintza aurkezten badute adjudikaziodun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoarekin, adierazpen hau bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute.

9. ERANSKINA: LEHIAREN DEFENTSARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.

(Derrigorrez aurkeztu beharrekoa)

..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*eragile ekonomikoa*), ... IFZ daukana, ordezkatuz, ... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZTEN DUT

Ordezkatzen dudan pertsonak, erakundeak edo enpresak modu independentean prestatu duela bere eskaintza, eta ez duela inolako harremanik izan lehiakideekin, ez eta haiekin inolako akordiorik adostu ere prezioen, eskaintzen aurkezpenaren edo beste edozein baldintzaren inguruan.

.....(e)n, 20…(e)ko ……(a)ren ……(e)(a)n.

Sinadura:

10. ERANSKINA: ESKAINTZA EKONOMIKOA

..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*lizitatzailea*), ... IFZ daukana, ordezkatuz,..... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZTEN DU:

I. Eskaintza egitean, kontuan izan ditu zerga-arloari, ingurumenaren babesari, enpleguaren babesari, genero-berdintasunari, lan-baldintzei, lan-arriskuen prebentzioari, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari eta laneratzeari eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharrari buruz indarrean dauden xedapenen ondoriozko betebeharrak.

II. Konpromisoa hartzen du kontratuak xede dituen prestazioak egikaritzean kontratua arautzen duten administrazio-klausulen agirian, haren karatulan eta oinarri teknikoen agirian eta, hala badagokio, dokumentu osagarrietan ezarritako baldintzak betetzeko, **Eranskineko aleko prezioetan**.

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura[15]-[16]:

[15]Prezioak agertzen diren orrialde guztiak sinatu behar dira.
[16] Zenbait eragile ekonomikok eskaintza aurkezten badute adjudikaziodun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoarekin, haren kide diren eragile ekonomiko guztien ordezkariek sinatu behar dute.

ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ERANSKINA

Espedientea: 011.ST.2025: ESKAINTZA EKONOMIKOA			
Xedea	Zenbatekoa € (BEZik gabe)	BEZ	Zenbatekoa € (BEZa barne)
• Auditoretza-2025ko ekitaldia.			
• Auditoretza-2026ko ekitaldia.			
• Auditoretza-2027ko ekitaldia.			
GUZTIRA			

11. ERANSKINA: BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENAREN ETA BALIABIDEEN ESKURAGARRITASUNA KONTRATUAREN INDARRALDI OSOAN

ALDE BATETIK, [17]..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*lizitatzailea*), ... IFZ daukana eta egoitza soziala ..... helbidean duena, ordezkatuz,

ETA, BESTETIK, ... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*beste erakunde bat*), ... IFZ daukana eta egoitza soziala ..... helbidean duena, ordezkatuz,

ADIERAZTEN DUTE:

I. SPKLaren 75. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ... (*lizitatzailea*) .....(r)en (*hirugarren erakundea*) kaudimenean edo baliabideetan oinarritu da ..... (*idatzi kontratuaren xedea*) xede duen kontratuaren adjudikazio-prozeduran, zeinak ..... (*idatzi espediente-zenbakia*) espediente-zenbakia baitu, parte hartzeko.

II. .....(e)k (hirugarren erakundea) ez dauka sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik.

III. Hauek dira .....(r)enak (hirugarren erakundea) diren eta .....(r)en (lizitatzailea) esku jartzen dituen kaudimena edo baliabideak:

- ...
- ...

IV. Kaudimen edo baliabide horiek kontratuaren indarraldi guztian egongo dira .....(r)en (lizitatzailea) esku.

V. .....(e)k (hirugarren erakundea) kontratazio honetan eskatutako ikasketa-tituluak, lanbide-tituluak edo lanbide-esperientzia eskatzen dituzten zerbitzuak emango ditu.

VI. .....(e)k (lizitatzailea) kontratuaren arduradunak eskatzen duen dokumentazio gehigarria aurkeztuko du arduradunari adierazpen honetan jasotakoa egia dela egiaztatzeko egokia iruditzen zaionean, errekerimendua betetzeko ematen zaion epean.

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura:

(*lizitatzailea*)

Sinadura:

(hirugarren erakundea)

[17] Bi eragile ekonomikok edo gehiagok eskaintza aurkezten badute adjudikaziodun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoarekin, adierazpen hau bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute.

12. ERANSKINA: SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZA

[18]..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*lizitatzailea*), ... IFZ daukana, ordezkatuz,..... zenbakiko espedienteari dagokionez,

ADIERAZTEN DU:

Sinatzaileak ordezkatzen duen enpresak, haren administratzaileek eta ordezkariek eta, hala badagokio, zuzentzen dituzten pertsonengatik edo beste inguruabar batzuengatik haiek parte izan diren beste enpresa batzuen jarraipena edo eraldaketagatik, fusioagatik zein oinordetzagatik eratorriak direla susma dakiekeen enpresek ez daukate Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan kontratatzeko aipaturiko debekurik edo bateraezintasunik, bertan xedatutako baldintzetan.

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura:

[18] Bi eragile ekonomikok edo gehiagok eskaintza aurkezten badute adjudikaziodun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoarekin, adierazpen hau bakoitzaren ordezkariek aurkeztu beharko dute.

13. ERANSKINA: AZPIKONTRATAZIOARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA

..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (*kontratista*), ... IFZ daukana, kontratista gisa, ordezkatuz,

ADIERAZTEN DU:

..... espediente-zenbakia duen kontratua betearazteko prozedurari dagokionez:

I.- .....(r)ekin (*azpikontratista*), (IFZ: .....; egoitza: .....; telefono-zenbakia: .....; eta legezko ordezkaria: ..... jauna/andrea) itundu du jarraian adierazten diren lanak baldintza hauetan egikarituko direla:

- Lanak:
- Lanen prezioa:
- Prezioa ordaintzeko baldintzak:
- Lanak egikaritzen hasteko data:

II.- Egiaztatu du azpikontratistak SPKLaren 215. artikuluan xedatutako gaitasun-betekizunak betetzen dituela eta ez dagoela kontratatzeko desgaituta, eta konpromisoa hartzen du hori egiaztatzen duten dokumentuak komunikazio hau jaso eta gehienez bost (5) egun balioduneko epean aurkezteko.

III.- Langileen ordezkariei azpikontratazio honen berri eman die.

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura:

14. ERANSKINA: LAN-KONTRATUEN BALDINTZEN INGURUKO DATUEI BURUZKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak, ... NAN-zenbakia daukanak, bere izenean edo ..... (kontratista),kontratista gisa, ordezkatuz,

ADIERAZTEN DU:

(*idatzi kontratuaren xedea*) zerbitzu-kontratuaren betearazpenari atxikitako langileak, (*idatzi urtea/hilabetea/eguna*)(e)(a)n, taula erantsian agertzen direnak dira.

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura:

LAN-KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUEN TAULA

(*idatzi kontratuaren xedea*) egiteko zerbitzu-kontratua

Izen-abizenak	NAN-zenbakia	Hitzarmen kolektiboa	Lanbide-kategoria	Kontratu-mota	Lanaldia	Antzinatasun-data	Kontratuaren muga-eguna	Urteko soldata gordina	Indarrean dauden itunak

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura: